Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA 13. ZENBAKIA MARTXOA 1996

13

METAFORAREN ZAINDARIAK



Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA 13. ZENBAKIA MARTXOA 1996

13

A U R K I B I D E A

METAFORAREN ZAINDARIAK

7
Anastasio Albisu Aierdi

11
Gurutz Ansola

14
Jose Basterretxea Mattoni "Oskilaso"

17
Junes Casenave Harigile

21
Jean M. Diharce "Iratzeder"

25
Piarres Duny-Petré

28
Iñaki Eizmendi

31
Jose Mari Etxaburu Etxaburu

34
Jon Etxaide

36
Joxe Garmendia Arruabarrena

40
Haritxelhar

43
Mariano Izeta Elizalde

46
Federiko Krutwig Sagredo

50
Jose Antonio Loidi Bizkarrondo

53
Xabier Lopez de Gereño Arrarte

57
Inozentzio Olea Ariztimuño

60
Joan San Martin Ortiz de Zarate

64
Karlos Santamaria Ansa

69
Martin Ugalde

73
Luis Villasante Kortabitarte

77
Piarres Xarriton

81
Anbrosio Zatarain Etxebeste

84
Augustin Zubikarai Bedialauneta

Marrazkiak:
OLARIAGA

Hegats
Literatur aldizkaria
13. zenb. 1996

ARGITARATZAILEA:
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

ALE HONETAKO KOORDINATZAILEA:
MAITE GONZALEZ ESNAL

MAKETAGILEA:
MAITE GONZALEZ ESNAL

Lamia-Txema Aranaz
Curia, 25-Sotoa
31001 Iruñea

Euskal Idazleen Elkartea
Zurriola hiribidea, 14-1º ezk.
20002 DONOSTIA
Tf.: (943) 276999
Fax: (943) 277288

ISSN: 1130-2445
L.G.: SS- 359/90

Metaforaren zaindariak

Eta idatzi zuten, idatzi
harrizko gau luzean zehar
minez zein pozez.
Hitza ahantz ez genezan.

Anastasio Albisu Aierdi

EUSKALDUN EZ IZATERA, GALEGO IZANGO NINTZATEKE

Soseguz, bizitza bera hartu behar den bezala. Soseguz baina gelditu gabe. 80 urte bete eta haruntzago. Gaztetan itsatsiriko zaletasuna egunero indartuz eta hari inoiz uko egin gabe.

1915eko martxoaren 27an jaio zen Anastasio Albisu Aierdi, Sustraitz, Lazkaon. Anes Arrinda euskal idazlearen lehengusu da. Baina hau euskaldunberria den

bitartean, Anastasio Albisu euskaldun zaharra, betikoa dugu. Aitarekin beti euskaraz egin zuen, amarekin berriz –eta ataundarra izan arren– gazteleraz harik eta apeztu zen arte.

Lazkaotik –lehen ikasketak Beasaingo lasalletarretan egin zituen– hamabi urte zituela seminariora joan zen. Eta seminarioan Kardaberaz taldean –Kardaberaz aldizkaria ateratzen zuten–, hainbat jende hezi eta zaletu zuen taldean partaide izan zen, On Manuel Lekuona buru zela. Baina bazen beste talde bat ere, zuzendaririk gabe, lagunak elkarrekin bildu eta lanak zuzentzen eta txukuntzen laguntzeko, eta horren buru Jose Maria Arizmendiarrieta ospetsua zen. Joskerari aparteko garrantzia ematen zioten orduan, euskararen beraren sena han zegoelakoan.

Seminarioan jaso zuen bere bizitzako lehen saria bertsotan idatzi zuen Balentin Barriotxoaren bizitzari buruzko antzerki batengatik, hain zuzen ere. Eta apezgaitegian antzeztu ere egingo zen obra, On Manuel Lekuonak bultzaturik.

21 urte zituen anaiarteko gerra piztu zenean, eta soldadu joan behar izan zuen. Baina ordena txikiak hartuak zituenez, kapelau militarraren laguntzaz koarteletik irten eta apez ikasketak aurrera eraman zituen Donostian, gerraren kalamitaterik handienetatik aparte.

Gerra bukatu zen urtean, 1939an, apeztu zen eta gotzainak Arabako Fontetxa herrira bidali zuen. Eta han egin zuen urtebete nahiko lasai, inguruan zebilen gosetetik nahiko urruti. Ondoren Trintxerpera joan zen, orduan kasik galegoa zen giro batera.

—Euskaldun ez izatera, galego izango nintzateke –aitortzen du gaur oraindik Anastasio Albisuk–, batez ere hizkuntzagatik.

Trintxerpetik Azkoitira, eta hantxe egin du bizitza guztia.

Sortzetik Garbia (1954, Zarautzen bigarren saria) eta *Mesederik Handiena* (1956, Arantzazuko lehiaketan saritua) obrak argitaratu zituen berehala, garai hartan – eta geroago ere– ohi bezala, norberak bere boltsikutik argitalpena ordainduz.

Gerraosteko giro beltzean ez zegoen non argitaratu, baina Anastasio Albisuk idatzi egiten zuen, idazten zuena argitaratzeko itxaropen handiegirik gabe. 1948an sortu zen *Egan* aldizkaria eta hara jo zuen askok eta askok. Anastasio Albisuk ere han

argitaratu zuen *Ogi ta ardo, Eduardo* eta *On egitean dago zoriontasuna*, e.a. *Karmel* aldizkarian *Fernando Amezketarra* antzerkia eta beste argitaratu zituen. *Olerti* aldizkarian, berriz, poesiak.

—Bilatzen genuen lekuan argitaratzen genuen guk –dio berak.

Euskara Batuaren auziak zeresan handia ekarri zuen, eta oraindik dakar. Anastasio Albisuk, ordea, batuari baino gehiago begiratzen dio euskararen jatortasunari, batez ere gaurko jendeak ulertzeko moduan idatzi behar dela azpimarratuz. Eta ikastolarako ere idatzi du –Azkoitiko ikastola sortu zutenetakoa da bera–, Jexux Gaztañagak bultzaturik: *20 ipuin eta antzerkitxo bat ikastolarako* (1975), *Kosmos* (1975), *Gartzi Ximeno eta...* (1975).

Eta benetan, euskara zabarrak kezkatzen du eta samintzen. Horregatik gaur oraindik *Euskarazaintza* aldizkarian idazten du. Komunikabideetan, prentsan erabiltzen den euskarak barnea mintzeraino kezkatzen du, baina areago oraindik liburuetakoak. Orobat, gaurko euskal gizarteak bizi dituen gatazkek ez diote bakerik ematen.

17 antzerki, bi nobela (*Erreka zuloan* eta *Auritz*), 28 ipuin, eta Jerusalenera egindako erromesaldiko berri dauzka jarrita euskal literaturaren plazan. Santa Teresitaren bizitza oraintsu argitaratu du, eta *Aitarengadik jasoak* izango da hurrengoa, joandako garaietako gauzak eta pasadizoak jasoz.

Halere, badu beste lan bat, askoren ustetan apalagoa, hainbatek baliorik apenas emango diona: urtetan eta urtetan, bere sermoiak idatzi egiten ditu beti, eta inolako lotsarik gabe irakurri ere bai, entzuleak merezi dion errespetoagatik.

—Guk, pentsatzen dut, munduarekin aldatu egin behar dugu –esan zidan apalapal.

Eta hortxe dauzka pilaturik egunen batean agian han edo hemen argitaratuko direlakoan, edo txukun-txukun utzi nahi ditu behintzat joandako garaien lekuko sermoi guzti horiek.

"Azkoitiko seme" izendatu dute herri horretan bizi izan den urteetan egin duen lanagatik, eta Azpeitian omenaldia eskaini zioten antzerkizaleek.

Zoriona zer den galdetu nionean, hala erantzun zidan:

—Zoriona zer den, ez dakit. Baina esango nuke zoriontsu izan naizela eta naizela gaur ere.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Sortzetik Garbia, 1954 Antzerkia.
Trabenan, 1959.
Garoa, 1959-60.
Fernando Amezketarra, 1961-62.
Ogi eta ardo, Eduardo, 1956 (in *Zeruko Argia*)
Erreka Zuloan, 1973. Antzerkia.
Gartzi Ximeno, 1975. Antzerkia.
Amezketa'ko Pernando, 1975.
Hogei ipui eta antzerkitxo bat, 1975.
20 Ipuin eta antzerkitxo bat ikastolarako, Kardaberaz. 1975.

Prentsa ĩdatzian kolaborazioak:

Karmel, Zeruko Argia, Egan, Olerti.

Gurutz Ansola Larrañaga



DOLARRAREN AHULEZIEN IKERTZAILE

Azken aldian politika izan du jarduera nagusi. Lehenago, ordea, politikak eraginda agian, euskara izan zuen, euskara bera politika zen garaietan hain zuzen.

Gurutz Ansola Larrañaga 1924ean jaio zen Azpeitian. Garai haietan sarri bezala, gurasoek ez zekiten gaztelerarik, eta eskolan gaztelera ikasi eta erabili bazuen ere, kalean euskara zen oraindik hizkuntza bizi kasik bakarra.

Haurtzaindegikoak egin ondoren, herriko eskolara joan zen eta handik maristetara, lehen ikasketak osatzera. Gizartean giroa erlijioak markatzen zuen garai hartan, bizitzako arlo guztietara iritsiz.

Lanean hasi behar izan zuen fabrikan hamabi urte zituela, gerra hasi zen urtean hain zuzen. Aita gerran zebilela, berak lan egin behar izan zuen haroztegian, senideetan zaharrena bera zelako eta gosea zabala inguruetan.

Hamabost urte zituela seminariora joan zen, Bergarara. Han urtebete egin eta Gasteizera Humanitateak egitera. Filosofia egiten ari zela –hogei urte zituen orduan– utzi zuen seminarioa.

Madrilgo asmotan zen, baina azkenean Deustuko unibertsitatea hobetsi eta hara jo zuen. Bilbon EKIN taldekoa da, beste jende nahiko ezagunekin batera: euskara zabaltzean zen taldearen helburua lehenik eta behin, eta bigarren herri kontzientzia suspertzea, historia sakonduz. Talde honetan, bestalde, kulturak bazuen bere garrantzia, eta Frantziako kultura eta idazleak ezagutu zituzten grina bereziz. Gurutz Ansolak bizitza osoan zehar gordeko du Frantziako kulturarekiko atxekimendua.

Ekonomikak eta Zuzenbidea amaitu eta Beasainera joan zen lanera. Baina bere asmoa Donostia aldera joatea zen, eta EUTGen irakasle izan da ondoren.

Egan aldizkarian hasten da idazten 1956ean, hain zuzen ere Zinema-kritika –batzutan antzerkiarena ere– eginez, zaletasun handia izan baitu arte horrekiko; ezin ahantz daiteke zine-kluben garaia dela hura, zine-klubak herri guztietan aurkitzen ziren garaia alegia. JAKIN aldizkariaren inguruan mugitu zen, eta aldizkari honek argitaratu zuen EUROPA (1965) liburuan esku hartu zuen. Karlos Santamariak eragin handia izango zuen Gurutz Ansolarengan. Pax Christi mugimendua eta jardunaldi katolikoak:

—Gu egarri bezala egoten ginen... bagenekien udan etorriko zirela guk paperetan bakarrik ezagutzen genituen filosofo frantsesak –adierazten du Gurutzek, Donostiako Jardunaldi Katolikoak aipatzean–. Guregan eragina izan zuen... Garrantzia handia izan du gaztedian –dio Karlos Santamaria goraipatuz.

OARGI mugimenduak ere izan zuen bere zeresana une horretan.

Ikastolen sorreran eta bilakaeran aurkitzen da Gurutz Ansola: Gipuzkoako Ikastolen federazioko lehenbiziko buru izango da bera, eta puska batean izan ere.

Zeruko Argia astekarian ekonomiaz idazten zuen Gurutz Ansolak eta 1970ean *Euskal Ekonomiaz* liburua idatzi zuen. Baina zentsurak bahitu egin zion liburu hori. Geroxeago atera zuen *USAren agintaritza eta dolarraren ahulezia* (1972).

Franco hil eta berehala politikara joko du erabat, eta alor horretan mugituko da, gaur arte, artikulugintza alde batera utzi gabe inolaz. Saiakera eta bereziki filosofia politikoa irakurtzea du zaletasuna. Bizitzak duen zentzua kezka gertatu baitzaio Gurutz Ansolari ere:

—Bizitzan gero eta garrantzia handiagoa du pertsona batentzat norberaren buruaren jabe izateak. Zuhurtziak. Horren bideak eta moduak... horrek bultzatzen nau piskat –aipatzen du bere gaurko zaletasunaz hitz egitean.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Euskal Herriko Ekonomiaz, 1971 USA-ren agintaritza eta dolarraren ahulezia, 1972.
Euskal Herria-ren informazio sozio-ekonomikoa, 1929-1978.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Deia, Egan, Jakin, Zeruko Argia.

Jose Basterretxea Mattoni



«OSKILASO»

Madrilen jaio zen halabeharrez Jose Basterretxea Mattoni, 1911ko abenduaren 9an, aita itsas-kapitaina izaki, familiak negua han igaro ohi zuelako. Baina sei hilabete zituenean aldatu zuten gurasoek Gernikara eta Gernikartzat jotzen du bere burua, euskara bera ere gernikarra baitu.

Amak irakatsi zion irakurtzen eta idazten, eskolara joan aurretik. Ondoren agustinoetan egin zuen batxileratoa, azterketak Bilbon eginez. Karrera, berriz, Madrilgo unibertsitatean egin zuen, zientzia fisiko eta matematikoak, alegia.

Eusko Ikasle Batzako lehendakari izan zen Madrilen.

—Karlistek dantza zeukaten jarrita han... nik ez neban joan nahi, hara ez! Baina neskek bai. Eta azkenean joan, eta ni presidente izendatu... –kontatzen du barre algaren artean Oskilasok.

1936ean, gerra piztu zen urtean, atera zuen lizentziatura. Eta Madrilen geratu zen Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisan. Eta hainbat jenderi lagun egin zion Madriletik irteten une larri haietan.

Madrilen inguraketa itxi aurretik, berriz, Valentziara eta ondoren Bartzelonara alde egin zuen, eta handik Frantziara eta 1937an berriz Bilbora gudari izateko asmotan. Baina asma zuela-eta, horretarako balio ez zuenez, Donibane Lohizunera aldatu zen, eta azkenik Parisera; han ikasi zuen frantses, Pariseko azentuaz gainera, berak dioenez. Eusko Jaurlaritzako bulegoan lan egiten zuen bitartean, Unibertsitatean sakondu zituen matematikako ikasketak.

—Rue des Mauvais Garçon-en bizi nintzen, Parisko lekurik merkeenean –kontatzen du berak, jateko pasatu behar zituen miseriak gogora ekartzen dituen bitartean.

Beretzat han lanik ez zegoela-eta, Bartzelonara joan zen miliziano izateko asmotan. Garaituek ihes egin zutenean, bera etxean geratu zen hobe beharrez. Hamabost egunez presoner izan eta gero, libre geratu zen. Aita, ordea, gartzelara eraman eta atera erabili zuten garaileek; baina berehala konponduko ziren gauzak familian.

Ingeles ere ikasi zuen bere kasa, eta ingeles irakasle izan zen institutuan Iruñean. Handik Lleidara joan zen zazpi urtez, eta azkenik oposizioak atera eta Iruñean jarri zen irakasle.

Bizkaieraz idatzi izan du, bere euskara batua egiten saiatu arren.

—Nik egin neban euskaldunentzako euskera batua, baina egin dana euskaldunbarriena izan da. Ze euskaldunbarriak euskaldun hutsak baino ugariago dagoz –bota zidan mingostasun apur batez.

Euskara batuak kezkatu du, eta horregatik idatzi ere idatzi zuen *Kurloiak* liburua (1962), euskara batuaren eredu propio bat aurkeztuz. Ipuinak ere idatzi ditu, *Egan* aldizkariak argitaratu dituelarik gehienbat. Mark Twain, E. Allan Poe eta Charles Dickens euskaratu ditu, eta nobela bi ere baditu argitaratu gabe.

Bere zahartzaroan, euskara erabat alde batera utzi gabe, pintura du zaletasun, eta elkarrekin hitz egin ondoren, bere margoak hartu eta Iruñeako udaletxea margotzera abiatu zen.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Kurloiak, Itxaropena 1962.
El Vasco de Hoy, Gran Enciclopedia Vasca, 1981.
El Libro Negro del Euskara, Imprenta Amado, 1984.
Gabeko Atorra, Ibaizabal, 1988.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Egan.

Junes Casenave Harigile

TAIGABE PASTORAL ONTZAILE

Xuberoak ezer berezirik badu, Pastorala du. Junes Casenave Harigile pastoralgile dugu, hasteko, eta hortik aitzina askoz gehiago, segitzeko.

Junes Casenave Harigile 1924ko apirilaren 4ean jaio zen Santa Grazin. Santa Grazi bortua da, eta horri lotua bizi izan da beti.

—Guziek bezala pentsatzen düt ikusten düdala ene haurtzaroa amets bat bezala eta gauza eder bezala. Eta han ni bizi izan niz familia batetan goxotarzünean.

Etxetik zekarren euskara, baina geroago amarekin landuko zuen. Eta 1952an xubererazko hiztegia hasi zuenean ere, amarengana jo ohi zuen halako edo bestelako hitzak zer esan nahi zuen, edo Xuberoan erabiltzen zenentz garbitzeko. Gero ere, betharramdarren artean –betharramdarra baita Junes Casenave, Mixel Garikoitzek sorturiko ordenakoa, hamaika urte zituela hara joanik– euskaraz mintzatzeko aukera izan du beti.

Xuberotarra da guztiz Junes Casenave, izatez eta sentimenez. Apartaturik dago inolaz Xuberoa, Junes berak aitortzen duenez, baina hizkeraz baino gehiago ahazturaz eta errepide hertsiegiez. Eta hura da halaber pobreena euskal lurraldeen artean.

—Bazen industria Atharratzen eta Maulen, ttipiagotu badire ere... xuberotarrak aixa bizi dira mementu hontan –aitortzen du, itxaropenak estali ezin duen samin tanta batez. Itxaropena, inondik ere, lehen Parisera joaten ziren gazteak Xuberoan geratzen direlako.

Bigarren Mundu Gerratea zela-eta, alemanek deitu zuten Alemaniara lanera joan zedin. Baina Santa Grazi herrian bertan ezkutatu zen eta Alemaniako lanetik libratu ere, muga pasatzeko "Juan Garzia" izenez paperak eginda izaki, tradizioak ere Nafarroako Erriberako bidea erakusten baitzien santagraztarrei. Juduei eta poloniarrei eta luxenburgotarrei lagun egin zien Santa Graziko herriak muga pasatzen.

Etxeko gerra amaitu eta Israelera joan zen Junes Casenave, eta han harrapatu zuen juduen eta arabeen artekoak hurrengoz. Eta hantxe apeztu ere egin zen. Grekera eta hebraiera han ikasirik, gerora jatorrizko hizkuntzatik euskaratuko zituen Orduen Liturgiako irakurgaiak.

Betharramen frantses, grekera eta latina irakatsi ditu lau urtez Casenavek. Beste hamabi urte egingo ditu irakasle Limoges hirian. Berehala bestelako ardurak ere izango zituen. Garai horretan hasi zen euskal hiztegia prestatzen; hogeita hamabi urtez luzatuko zen lan hori.

Junes Casenave ondoren ikastetxeko irakasle eta zuzendari izana da Donapaleun hamazazpi urtez, eta bera izan zen lehena ikastetxean euskara ezarri zuena. Baina

hura utzi eta erabat zahartu aurretik Xuberoan zerbait egin nahirik, Larrañera joan zen:

—Banizün harrotarzün bat Larrañen nintzalarik, zeren eta Euskal Herriko apez goena nindüzün –dio umore xaloz.

Ondoren Altzaira joan eta hantxe bizi da gaur.

Pastoral ugari idatzi ditu Junes Casenavek: *Santa Grazi, Xiberuko gaiak, Zumalakarregi, Santa Kruz, Pette Basabürü, Ibañeta, Amikuze, Maitena Basabürü,* e.a. *Agota* pastoralaz Toribio Alzaga saria eskuratu zuen. Bertsotarako erraztasunik handiena erakusten du Casenavek bere lan guztietan. Orobat idatzi du Xuberoko kontakizunei buruz ere, bat baino gehiago jasoz (*Azkenean Dilindan*, 1978). Baita hainbat artikulu ere euskal aldizkarietan (Maiatz, e.a.) Euskal Kultur Etxeak eraturiko saria irabazia du. Maiatz aldizkariak antolatua ere irabazi zuen (Ezponda). Olerki ugari idatzi du. Imajina Euskadi lehiaketako bigarren saria irabazi zuen 1994ean (Ohiangalat kontakizun poetikoa). Mitologia ere jaso du (Jose Miel Barandiaranen omenezko liburuan argitaratua). Nobela bat eta Kontzilioko lanak Xuberoko euskarara itzuli ditu. Baditu hainbat pastoral idatzirik, oraindik argitaratzeko.

Azken aldian *San Mixel Garikoitz* pastorala idatzi eta aurkeztu ondoren, frantsesez idatzi du bat Biarnon antzestua izan dadin.

Basaburuan, Altzain, bizi da Junes Casenave, eta eskualde osorako lau apez bakarrik izaki, erdiak gaixo zeuden ni iritsi nintzenean. Baina, ez da bakardadearen beldur, inguruko jendea baitu lagun eta lana ugari zeregin.

—Nik ez dut denborarik ükaiten ikusteko zer den denbora, nola igaiten den... Geroalat bürüz badüt beti zerbait egiteko. Ordian, hortan bizi niz... gauza inportantea da zerbait egiten dügüla –esan zidan azken agurra egitean.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Santa Grazi, Jakin 1976. Antzertia.
Ibañeta, Jakin 1978. Antzertia.
Orhiako Naba, Euskalzain Maule 1978. Saiakera eta Olerkia.
Pette Basaburu, Caja de Ahorros Vizcaina 1980. Antzertia.
Maitena Basaburu, Euskalzain Maule 1982. Antzertia.
Amikuze, Gordailu 1983. Saiakera.
Altzaiko Herensugea, 1984. Ipuina.
Egun Oroetako Irakurgaiak, Itxaropena 1986.
Sineste zahar edo ez hain zahar (Euskaraz eta frantsesez) Eusko Ikaskuntza 1988. Ipuina.
Hiztegia (frantsesetik Euskarara), Hitzak 1989.
Zumalakarregi, Hitzak, Ozaze 1989. Antzertia.
Ximun Zetegiet, Arce, Maule 1991. Hagiografia.
Santa Kruz, Lantzer, Ozaze 1992. Antzertia.
Ipuinak, 1990, Maiatz.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Le Monde, Sud-Ouest, Le Miroir de la Soule, Herria, Antzerti, Ekaina, Euskara, Euskaldunon Egunkaria, Argia, Egin, Eusko Ikaskuntza.

Jean M. Diharce "Iratzeder"

ZERU-MENDIKO ARTZAINA

Xabier Jean Diharce, Iratzeder, Donibane Lohizunen jaio zen 1920ko urtarrilaren 20ean, bost senidetan laugarrena.

Lehen ikasketak –frantsesez noski– Josep Sainduaren eskolan, eta segidan Santa Maria ikastetxean. Hamar urte zituela urte bakar bat egin zuen Ustaritzen San Frantzisko Xabier eskolan eta handik bi urtera, hamahiru urte zituela, berriro itzuli zen, baina apez izateko asmotan oraingoan:

—Hi apez? –esan omen zion aitak–. Ez dakik-eta euskaraz!

Egun horretan bertan heldu zion euskara ikasteari, amari laguntza eskatuz, inolaz. Eta lehen bertsoak aukera horretan egin zituen. Ustaritzen, berriz, euskal kantak ikasteari ekin zion, eta bati galde eta besteari galde, azkenean ehundaka pare bat kanta ikasi zituen, euskarazko bertsoen eta poesiaren eta kanten sena zertan zen ordudanik bere baitari itsatsiz.

Hamabi urteko-edo zela, Pierre Lafittek-eta egin ohi zituzten bileretara joan ohi zen Iratzeder, bere senideekin batera. Gai serioak zetozenean, ordea, kanpora botatzen zituzten txikiak. Eta orduan, otoitz egiten zuen:

—Horrela ikasi nuen euskararen alde otoitz egiten –dio berak.

Hamasei urte zituela, gaixoaldi bat izan zuen eta Larresoro-Gaztelura joan zen.

—Horrat etorri zitzaitan, hogei-ta hemezortzian, Pierre Larramendy, "Manez Ezpata"-ren laguntzailea eta "Courrier"-eko euskal-orriaren moldatzailea: ez ote nuen olerkirik, astean behin igortzen ahal? Hasi nintzen, beraz, pertsu argitaratzen; eta, geroztik nehoiz gertatu ez zautana, aldi oroz lerro bezenbat sos ordaindua zitzaitan.

Garai beretsuan *Aintzina* aldizkariaren bigarren aldiari eman zioten hasiera Iratzederrek, Mark Legassek, Xarritonek eta beste zenbaitek. Bera Donibane Lohizunen aritu zen aldizkari hau saltzen.

1937an, Gernika bonbardatua izan zenean, poesia bat idatzi eta Euzko Deiara bidali zuen, eta hartarako ezizena asmatu beharrez, Diharce iratzea zela pentsaturik, Iratzeder izengotia hautatu zuen poesia hura izenpetzeko, eta harrezkero haretxekin geratu da betiko.

1939an, Munduko Bigarren Gerratea sortzean, hainbat apezek frontera joan behar izan zuen, eta haien ordez, apezgaiak igorri zituzten irakasle ikastetxeetara. Iratzederri Pabe tokatu zitzaion, matematika irakasle, hain zuzen. Baina bihotza hutsik sentitu zuelarik, santutu egin behar zuela erabaki zuen, komentura sartuz. 1941ean, azkenik, Belokera joan zen beneditar izateko. Gerra piztu eta Alemaniara bortxazko lanera bidaliko zutela pentsatu eta Lazkaora ihes egin zuen mendiz. Baina hilabete baten buruan, Alemaniako bortxazko lanetatik libratu zela jakitean, itzuli

zen bere komentura. Pabera soldaduzka egitera joan eta osasun gutxikoa zela adierazirik, soldaduzkatik etxeratu zen. 1945ean, Belokera itzulirik, apeztu zen.

Moraleko irakasle izan zen lehenbizi eta 1948an hasi eta hogei urtez beneditar nobizioen maisu izan da; gero priore eta 1972ko urtarrilaren 21ean abade izendatu zuten.

Euskaraz lehen letrak hamabi urte zituenean idatzi zituen. Baina formalago, 1938an hasi zen poesiagintzan: *Pindar eta Lano* (1941), *Zeru-menditik* (1946) *Argiz Argi* (1957) *Uhineri nausi* (1971), *Jaunaren hegala* (1980) –gehienak *Biziaren Olerkia* liburuan jasoak–.

Eguerri (1946), gabonetako ikuskizuna idatzi zuen. *Herri Mina* (kantak) *Mortutik oihu* (1947) antzerkia idatzi zuen ondoren. *Kantikak*, kanta berriak (1948). *Pindar eta Lano, Zeru-menditik, Argiz Argi, Uhineri nausi, Jaunaren hegala.* Prosaz, berriz, *Ezkongai* (1954) idatzi zuen.

Antzerki ugari ditu eginak: *Zakalar* (1957, bertsozko drama Eskualtzaleen Biltzarrak saritua), *Pasionea* (musikaz hornitua), *Aphez, Piztu zauku, Maria eta Kurutzea, Arrapailu, Miss Mach, Iturrian eta Tontoleiko hiru semeak, Herrimina* (1950-60 bitartean eginak), *Nire etxean hiru sorgin, Fededun arbasoa* (Opera, Patxi Bengoak musika jarria, 1977).

Euskara ikasteko egina dauka: *La métode basque pour debutants.*

1962an Euskaltzain hautatua izan zen. 1963an liturgian halako eragin handia izango zuten *Salmoak* argitaratu zituen, Gabriel Lertxundiren musikaz kantatzekoak.

Aintzina, *Gure Herria* eta *Otoitzlari* (aldizkari honetako zuzendari ere izana da), *Gernika*, *Euzko Gogoa*, *Egan*, *Olerti*, *Ezkila*, e.a. aldizkarietan argitaratu ditu hainbat artikulu.

Kanta askoren letrak prestatu ditu, Gabriel Lertxundi beneditarkideaz aparte, Urteaga, Garbizu, Olaizola eta Bengoa musikalariek musika jar ziezaieten. Aita Donostiak musikaturikoak ere baditu, argitaratzeko zain.

Otoiz eta gudu, Ehun urte euskal semeen alde, Hamazazpi hilabete Afrikako bihotzean, Jainkoaren erreinuko hiru borrokari, Jainkoaren euri, Lur sainduan hamar

egunez beilari dira Iratzederren oparotasunak umoturiko beste hainbat liburu eta lan.

Belokeko abadegoa utzirik Afrikara joan zen han betiko gelditzeko asmotan, baina hamazazpi hilabete besterik ez zituen egin han. Eta berriro Belokera itzuli eta gaur han bizi da.

—Hor eman dut ene bizia. Urtetik urterat, bihotzean nituenak erraiten nituen –*Biziaren Olerkia* liburuaz mintzo delarik. Poesia izaki azken batean arnasaren sakontasuna.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Euskal Herria eta Jainkoaren gizaldea.
Azkalar, 1939. Antzerkia.
Itsasora, 1940. Antzerkia.
Pindar eta lano, 1941. Poesia.
Zeru-menditik, 1946. Poesia.
Tontoteiko hiru semeak, 1947. Antzerkia.
Piztu zaiku, Maria eta Kurutzea, 1951. Antzerkia.
Ezkila eta Xirola, 1951. Antzerkia.
Herri mina, 1952.
Meza sainduko kantikak, 1953.
Mortutik oihu, 1953. Antzerkia.
Pasionea, 1954. Poesia.
Harrapallu, 1955. Antzerkia.
Eguerri, 1956. Antzerkia.
Argiz argi, 1957.
Salmoak, 1963.
Nere etxean hiru sorgin, 1966. Antzerkia.
Himno berri, 1972. *Uhaineri nausi,* 1975. Poesia.
Nor da Hor, 1975.
Fededunen arbasoa, 1977. Antzerkia.
Betel-ko aldarea, Antzerkia.
Dabid, artzain eta iheslari, 1982.
Jaunaren hegala, 1983. Poesia.
Oroitzapen purruxkak, 1983. Eleberria.
Berri ona salmo-kantutan, 1984. Poesia.
Amen besta, 1984. Antzerkia.
Dabid eta Abzalo, 1986. Antzerkia.
Otoitz eta gudu, 1988. Eleberria.
Lur Sainduan hamar egunez beilari, 1990. Eleberria.
Hamazazpi hilabete Afrika-ko bihotzean, 1991. Eleberria.

Piarres Duny-Petré

ALEMANIARREN KONTRA BAINO, NAZIEN KONTRA ARITU GINTUZUN

—Nire ikasketak ez nituen egin polizia bilakatzeko –dio Piarres Duny-Petrék, halabeharrak polizia izatera eraman zuela adierazteko. Bere asmoa irakasle izatea baitzen, filosofo alegia.

Baina Bigarren Mundu Gerratea sartu zen asmoen eta gogoen artean, eta Petain Marexalaren alde ibili zirenen kontra hasi behar izan zuen lanean, erresistentzian kapitain izan ondoren.

Piarres Adrien Duny-Petré, 1914ko apirilaren 3an, Lehen Mundu Gerratea sortu bezperan, jaio zen Donibane Garazin, eta hantxe bizi da gaur ere erretiro ederrean.

Mugazaina zuen aita, eta horregatik mugako herrietan batera eta bestera ibilia da Piarres Duny-Petré, eta hala Ezterenzubin frantsesa irakasteko euskaraz ziharduen errienta izan zuen.

Lehen ikasketak herriko eskolan egin zituen, eta bigarren mailakoak Baionako Lizeoan, barnetegian, batxileratoa ateraz. Gurasoak, bitartean, Afrika beltzean ziren, aitaren lanbidearen kariaz, mugazaina baitzen esan bezala.

Filosofiako lizentzia erdietsi zuen Marseillako Unibertsitatean, eta jarraian Tolosako Unibertsitatean Ikasketa hispaniarretako goititulua.

1939an gerrara joan behar du. 1940ko ekainaren 12an, ordea, (ondo gogoan dauka berak) preso hartzen dute alemanek, eta bost aldiz ihes egin zuen Alemanian kontzentrazio-zelaitik, baina bost aldiz harrapatu zuten berriro. Seigarrenean, ordea, 1942an, Nafarroa Behereraino iritsi zen. 1942tik eta 1945a artean, Alpeetako mendietan dihardu "sasi-guduan", berak dioenez, kapitain gisan, erresistentzian sarturik.

—Lehenik, Gora Petain! hots egiten zuten, eta gerra bukatzean Vive De Gaulle! –hala jokatu zutenak bahitzea izango zuen ondoren egiteko.

Gerra amaitu zelarik, administrazio frantsesean sartu zen, polizia bezala alegia, kolaborazionistak atzemateko. Gerora Clermont-Ferrand (zortzi urtez isilpeko polizian Vichyren alde ibili zirenen kontra, hain zuzen), Marseilla, Amiens, Akize, Perigueux eta Pabe izan zituen destinu bere lanbide horretan.

1957an hasten da euskaraz idazten –urte berean izendatzen du Urgazle Euskaltzaindiak, Donibane Garazi bere jaioterriko euskarari buruz eginiko ikerketen ordainetan– Pariseko euskaldunek duten ELGAR hilabetekarian:

—Etsenplu eman beharrez hasi nintzen euskaraz idazten –aitortzen du berak.

Poesia idatzi du batik bat euskaraz, eta artikuluak frantsesez eta euskaraz eskura zituen aldizkari eta astekarietan. Bere izenaz aparte, "Piarres", "Piarres Heguitoa", "Heguitoa", "Jondoni Petri" edo "Garaziko Manex" erabiltzen ditu ezizen bezala bere lanak izenpetzeko.

1960ean *Basayauna, le seigneur sauvage* frantsesez idatzi zuen lanagatik Baionako "Prix littéraire du musée basque" saria jasotzen du. Baditu beste hainbat sari ere.

René Lafon Bordeleko irakasle eta euskaltzalearen laguntzaile gertatu zen Bordelen, Donibane Garaziko eta inguruetako euskarari zegokionean, eta hark bultzaturik idatzi zituen hainbat artikulu bere jaioterriko gauzei buruz. Eta Piarres Duny-Petrék mitologia gustukoago bazuen ere (gai hau behin baino gehiagotan erabili du, adibidez: *Trois textes folkloriques de Basse Navarre orientale, Formulettes enfantines, rengaines traditionelles et proverbes basques, Recherches sur les couplets perdus des vieilles chansons populaires basques* edo *Notes sur le parler populaire basque de Basse Navarre orientale*), Lafonek linguistikara bultzatu nahi izan zuen, bere informatzaile bihurtuz.

—Polizia lana gustoko ez nuenez, idatzi egiten nuen ordainez –aitortu zidan lanoki, lotura bat behar zuen noski etxearekiko.

Folklore, etnografia, hizkuntzalaritza, poesia, kontakizunak: denetik idatzi du Piarres Duny-Petrék, bai aldizkari espezializatuetan bai astekari eta hilabetekarietan. Hala aurki daitezke bere artikuluak eta lanak eta poesiak aipaturiko *Pariseko Elgar* aldizkarian bezala, *Eusko Folklore* (ikerketa etnografikoak), *Herria* (poesiak eta artikuluak), *Gure Herria* (Garaziko antzinako ixtorioak, poesiak eta artikuluak frantsesez), *Gure Almanaka* (artikuluak eta olerkiak), *Pan Pin*, *Enbata* (artikuluak), *Príncipe de Viana* (Garaziko berriak eta olerkiak), *Lagunt eta Maita* (Pabeko euskaldunen hilabetekaria, artikuluak eta olerkiak), *Boletín de Amigos del País* (ikerketak) eta *Maiatz* (artikuluak karlisten gerretaz eta poesiak) aldizkari edo astekarietan. Orobat, parte hartu du Ikerketa Pirinearretako nazioarteko Batzarretan Paben, Lourdesen eta Gironan, bere lanak batzarre horietara eramanez.

Eskulana du atsegin ("nire aurretikoak ofizialeak ziren", dio berak), eta luma erabat utzi gabe segitzen du azken Gerra Handian gertatuak jasoz, orduan gertatua gaur askori gehiegi interesatu ez arren.

P. Zabaleta

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Herria, Gure Herria, Enbata, Ikuska, Eusko Ikaskuntza

Iñaki Eizmendi «Basarri»



BAT BITAN BANATZEN DA

Azken hamar-hamabi urteotan izan naiz tarteka Basarrirenean. Eta beti sortu izan dit halako zirrararen bat bere lan-gelari josia topatzeak. Ez baita han bertsolariaz irudika genezakeenaren aztarnarik ere.

Gela txiki txiki bat da, bildua oso, hormatan zintzilik dauden liburu pilek itoagotzen dutena. Mahai-gainean, besaulkietan, berogailuaren sama epelean...

liburuak topatuko dituzu eta haien artean, Olivetti txikia eta Basarri handia, zahardadearen lehian, honek hatz erkinez kalkatzen duena hura presarik gabe paperera eramanaz.

Gela hartan eskizofrenia hitza etorri izan zait beti gogora. Zenbat betetzen zuen gizon hark plaza eta zeinen nimino azaltzen den liburuek jan beharrean. Zenbat txalo eta esku-zartada sorrarazi zuen bere hitzak eta hitza topatu nahiak ze hustasun dakarren Olivettia isiltzen denean. Zenbat bizkarreko miresle eta zenbat bizkarzain leial herriz herri zebilenean, eta ze hoztasun argi-flexoak sorturiko norbere itzala baino bidai-lagun beroagorik ez duenean.

"Hau nahiago nik ordea!" aitortzeko tentazioa antzeman izan diot, aukerarik egitera, begirunez seguraski, sekula ausartu ez bada ere. Bertsolaritzak eman zuen ezagutzera Iñaki Eizmendi, baina literaturarekiko lotura urrutidanik datorkio, goitizena bera ere hari zor. Gerra aurreko euskal aldizkarietan nolabait sinatu behar eta orduan hautatu omen zuen Basarri izangoitia, Zarauzko Azken-Portu taberna zeukatela, kalerakoan edo-ta etxerako itzuleran hura baitzen inguruetako baserritarren bilgune.

Jokatu zen lehen Bertsolari Txapelketan ere, artean hogeitabi urte egiteko zituela, euskararen gainean bertsoak botatzea egokitu zitzaienean, Basarrik Probentza aipatu zuen, Mistral Nobel Sariaren jabea eta "Mireio". Tamainan zuen eskola, baina gaztetatik irakurzale eta jakimin izan zenik ez daiteke uka. Harrotasunez aitortuko du berak hori nonnahi eta hori aitortu hutsak ekarriko dizkio kalapita eta disgustorik handienak. Peru Abarkaren mitoak bizirik baitirau bertsoaren arloan, inork sekula definitzen asmatu ez duen "berezkoa"renak dirauen bezala, eta ikasia izatea pekatu joko dute, ezjakin izatea meritu den heinean.

Txapela Uztapideren buruan ipini zutenean, Basarrik pozik hartu zuen epaia. Bere haserrea eragin zuena, ondorengo artikuluska bat izan zen, non Uztapide Xenpelarren pare eta bera Iparragirreren moduko azaltzen zituzten. Bata ezikasi iaioa eta bestea ikasi ez hain abila.

Bertsotan nahiz hitz-lauz, egile-entzule nahiz egile-irakurle harremanean, komunikazioaren hautua egin zuen, ulergarritasunarena, gauzak ahalik errezen aurkeztearena. Hargatik bere plazako saioetan ez dugu gaztetako Mistralen hura bezalako

erreferentzia kultorik aurkituko, bere bertso bat-bateko nahiz idatzietan literatur baliapideen erabilera oparorik topatuko ez dugun bezala. Bere idazkietan ere, nola gaiaren aukeran hala darabilen hizkuntza eran, ulerterreztasunaren aldeko apustua begi bistakoa da.

Basarrik Gabriel Celayari ikasitako esaera bat erabili izan du maixko: "Bearrena ez da erriaz itzegitea, erriarekin itzegitea baizik". Uste hori ipar egin du aurrera hainbeste urtean. Ze herri? Bat eta bakarra? Bakarra eta berdina? Etorriko zaio burura egun literaturgintzan ari den edonori. Herrian, baita gurean ere bere txikian, batari hurbileko zaiona zaio besteari urrun. Bata emoziona arazten duenak bestea hotz utziko du. Denentzat ari denak nekez egingo du gutxirekikoa...

Ni, Basarri pertsonak emozionarazten nau. Bere lan-mahaiaren aurrean Trabajadoresetan ibili zen garaiak ekartzen hasi, Sarako Klaritaz akordatu eta buru-makur eta egoskor mahaiaren barreneneko kajoian hari jarritako bertsoen bila hasten denean. Horrelakoetan, pertsonajea izateaz gain, pertsonaia ere badela iruditzen zait.

Andoni Egaña

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Atano III. Bere Edestia bertsotan, Itxaropena, 1949.
Basarri´ren bertso sorta, Itxaropena, 1950.
Kantari nator, Itxaropena, 1960.
Laugarren Txinpartak, Auspoa, 1966.
Sortu zaizkidanak, Auspoa, 1973.
Kezka-giroan, Auspoa, 1983.
Bertsolaritzari buruz, Auspoa, 1984.
Nere bordatxotik, Auspoa, 1992. 1993.

Jose Mari Etxaburu Etxaburu

KAMIÑAZPI

Ondarruarra dugu Jose Mari Etxaburu, Kamiñazpi. 1913an jaio zen, zazpi senidetan bosgarrena eta mutil bakarra etxean. Haur zelarik mojetan ibili zen eskolan, bederatzi urte zituen arte, eta ondoren herri eskolan. Eta osagarri bezala, Doña Benignak etxean zeukan eskolara joan zen piskatxo batean.

Etxeko guztiak marinel izan baziren ere, lehorrean geratu behar izan zuen, fabrikan, hamabi urte zituela sartuta. Gerra iritsi zen arte.

Lehen lana –zazpi urte t'erdi zituela hasita, herriko gainerako haurrek bezala– antxoari buruak kentzea izan zuen fabrikan. Baina hamabi urte zituenetik, latero. Guztiarekin, ordea, hamabost urte zituela musika bandan sartu eta solfeoa eta saxofoi altua ikasi zituen.

Gerratik libratu egin zen gaixotuta zegoelako, ebakuntza egin berria ziotelako, alegia. Azkenean, Donibane Lohizunera alde egin zuen itsasoz, beste hainbatek bezala. Hantxe egin zuen urtebete osabaren etxean. Handik Landetara joan zen pinu botatzera, eta kasik urtea egin zuen han. Berriro Donibane Lohizunera itzuli eta Euskal Gobernuak zuen aterbean egon zen, harik eta Bigarren Mundu Gerratea piztu zen arte.

Azkenean Ondarrurako bidea hartu zuen. Baina, etxerako bidea ordez San Pedro de Cardeñarako bidea erakutsi zioten, hau da: gartzelakoa.

Cardeñatik Miranda de Ebrora, e.a. leku asko pasatu behar izan zituen, azkenean etxera bueltatu zen arte.

Euskara ikasteko dotrina eta elizako liburuak izan zituen:

—Euskaraz irakurten beti jakin nuen, txiki-txikitandik –dio Jose Mari Etxaburuk.

Excelsior egunkaria hartu ohi zuen kirolen berri jakiteko, eta Argia berriak euskaraz jakiteko. Hemezortzi urte zituela, berriz, Ekin aldizkarian hasi zen idazten, herriko berriak hara bidaliz. Gogoan dauka herriko berriez aparte idatzi zuen lehen artikulua:

—Lelengo artikulua "Idiakez askatu" egin neban.

Gero handik aurrera *Euzkadi* egunkarian ekin zion, "Iturri ondo" eta "Iturrondo" ezizenak erabiliz. Gerra amaitu ondoren, 1957an *Zeruko Argia* aldizkarian hasi zen. Harpidedunak egiten ere ahalegin handiak egin zituen, euskararekiko maitasunagatik. Baina bere ezizena aldizkarian beste norbaitek erabiltzen zuela ikusita, "Kamiñazpi" hautatu zuen, handik aurrera ezizen bakar hori erabiliz.

Pan-Pin, haurrentzako aldizkarian berak prestatu ohi zuen bizkaierazko orria eta ordaindu ere bai orri hori beste batzuen laguntzaz inolaz.

—Sasi-liburuak ere argitaratu ditut. Orriaren alde bat bakarra idatzita zeukatenak, eta mojek azalak jarrita –sei guztira, 1982an hasita, hori ere bere ekintzetan sartzen baita.

Hondarrabiko Kondaira ere idatzi zuen. Bertso berriak ere bai, eta *Auspoa*n argitaratu. *Ondarrutarren izkera berezia* da Kamiñazpik egindako ikerketetako bat, urgazle bezala Euskaltzaindian aurkeztu zuena.

Sariak ere jaso ditu: Irungo lehen literatur sariketan berak eskuratu zuen sari nagusia: *Errijaiak eta San Martzialgo Alardea.* Gernikako 600. urtea zela-eta, bigarrena: *Maitasunaren arantzak.*

Lehen aipatu bezala, *Argia, Ekin, Euzkadi, Euzko, El Dia* egunkari eta aldizkarietan idatzi du gerra aurrean. Eta gerra ostean, 1957an *Zeruko Argia*n hasita, *Anaitasuna, Karmel, Goiz-Argi, Jakin, El Diario Vasco, Euzko Deya* eta *Agur* aldizkari eta egunkarietan utzi du bere lanaren arrastoa.

—Paper asko beztu dot –berak dioen bezala.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Ondarrabiako kondaira, Itxaropena 1986.
Neure lau urteko ibilerak, Etor 1988.
Neure idazlan bilduma, Itxaropena 1991.

Jon Etxaide



AITARI ASKO ZOR

Zeharbideak nahitaezkoak dira Jon Etxaideren bizitza osatzeko asmoa izanez gero. Duela urte dexentetik hona kazetariei elkarrizketarik ez ematea erabakia duela jakinik, ezinbestekoa da ezagutu dutenengana jotzea. 1920ko martxoaren 27an jaio zen donostiar honen bizitzak, horretarako eta askoz gehiagotarako ere ematen du ordea.

Jatorrietara begiratzen hasi eta berehala sortzen dira lehen datu esanguratsuak. Maria Dolores Itarte eta Inazio Maria Etxaideren semea, batez ere garrantzitsua izan

zen aitaren papera Jonen izaeran. Gizon buruargia oso –Donostiako intelektual bat, gipuzkoar hiriburura telefono automatikoa ekarri zuen ingeniari bezala gogoratua dena eta 1951ean Eukaltzaindiako lehendakari izendatu zutena, besteak beste–, Inazio Maria Etxaidek zuzenki eragin zuen Jon semearen etorkizunean. Semeari ez zion etxean erdaraz hitzik egiten uzten, gazteleraz beranduago ikasiko zuelakoan eta euskal arazoak kezkatzen zuelako.

Adierazgarriak dira oso duela zortzi urte Joseba Etxarri kazetariari eskaini zion elkarrizketan –azkenetakoa–, Jon Etxaidek berak bere euskaltzaletasunari buruz esandakoak. «Euskaltzaletzen noiz hasi nintzen? Esango nuke Aginagako Galardi-Azpia baserri maitagarrian. Aitak, udak pasatzeko erosi zuen baserri hau, hiru asmo nagusi zituelarik buruan: guri kanpoa eta natura maitarazten erakutsi, gure euskara jatortu eta hobetu, eta Donostiako hondartza madarikatuari ihes egin, deabruek, emakume gutxi-jantzien antz-irudipean, gal ez gindezaten».

Horrela ikasi zuen maitatzen Etxaidek euskara, jazarria, ostikopetua eta mespretxatua zegoela sentituz. Abertzaletasuna ere eragin zion maitasun honek. *Argia* eta *El Dia* irakurriz abertzale egin zen hezurretaraino. «Horra, bada, nondik eta nola, berez bazetorren ere, neure aita integristari zor diodan parte batean, neure bizitza guztiko abertzale izatea».

Aitak hain euskaltzale somatzen zuelarik, hamabost urte zituen semea idaztera animatu zuen, zertaz eta nola idazten ez bazekien ere.

Amagoia Iban

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Alos-torrea, Itxaropena 1950.
Amaiur, Euzko Gogoa, 1951, Gero, 1978 Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1986.
Purra Purra!, Itxaropena, 1953; Erein, 1988.
Joanak joan, Itxaropena, 1955; GAK,1980; Erein, 1986; Erein, 1992.
Amasei seme Euskalerri'ko, Itxaropena, 1958; Erein, 1990.
Pernando Plaentxiarra, Itxaropena, 1957.
Etxahun, Itxaropena, 1969.
Gorrotoa Lege, Itxaropena, 1964; Elkar, 1984.
Begia begi truk, Egan, 1962; Gero, 1978; Erein, 1984.
Markes baten alaba, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1982.
Etxaide jauna, Erein 1987.
Eneko Agerroa, Erein 1991.

Joxe Garmendia Arruabarrena



IZTUETAREN PESKIZAN

Liburuak nagusi dira Joxe Garmendia Arruabarrena zaldibiarraren etxean. Edozein gelatara sartuta ere, denetan topatzen dira hamaika liburu. Ez da kasualitatea, berak dioen bezala. «Beti liburu tartean ibili naiz, giroa ere horrelakoxea suertatu zitzaidalako. Etxean giro hau ezagutu nuen».

1925ean jaio zen gizon honen etxean guztiek ez zituzten alferrik egin goi mailako

ikasketak. Medikuak, ingeniariak, komertzianteak... Guztiak hezkuntza humanistikoaren oinordekoak. Joxe Garmendiari Gasteizko Seminarioan ikastea egokitu zitzaion, 1950ean apaiz egin zelarik. Baina apaiz egin aurretik jada erakutsia zuen berak Iztueta folkloristarekiko zuen jakinmina, Pantxo Labayen tolosarrarekin Iztueta zaldibiar ospetsuaren heriotzaren mendeurrena betetzean omenaldi bat antolatu baitzuen jaioterrian. Omenaldi honetara Euskal Herriko intelektual asko erakarri zituen.

Hau ez zen izan, ordea, Iztuetaren inguruan Garmendia gazteak eginiko lan bakarra. Egia esan, bizitzaren zati handi bat eskaini dio –eskaintzen dio oraindik– gai honen ikertzeari. Dedikazio honen emaitza dira, besteak beste, *Iztuetaren olerkiak, Iztueta, dantzarien maisu eta Miscelanea,* eta oraindik argitara eman ez duen *Iztueta al descubierto* liburuak. Hamaikatxo artikulu ere utzi ditu, noski, batez ere 1967. urtetik aurrerakoak, Iztuetaren jaiotzaren bigarren mendeurren ospakizunak zirela eta.

Errekonozimendu gehiegirik jaso ez duen lana, halere, gizon ilezuri honen hitzek argi asko adierazten duten bezala. «Iztueta eta nire herria maite ditudalako egin ditut lanok. Ez naiz beraz alboratua sentitzen inolaz ere. Baina gai honen inguruan hainbeste lan egin ondoren inork deitzen ez dizula ikusteak, inor gutxik dakienean nik adina berari buruz eta gauzak aldiro argitaratzen direnean bere inguruan, tristea da».

Antzeko inpresioa du bere gainerako lanei buruz ere. Etengabe idazten aritu da euskal gai askoren inguruan, beti ere argitaratugabeak ziren datuak oinarritzat erabiliz. Horrek dakarren lan gehigarriarekin, ikerketa eta idaztea batzea ez baita lan erraza. «Beti gustatu izan zait arakatzea. Lehendik ezezagunak ziren gauzak argitara ekartzea. Nire hezkuntza humanistikoaren eraginez izan daiteke agian. Egun, ez dago hezkuntza humanistikorik. Nire artikuluetan literatura egin dut nolabait, estilo deskriptiboa landuz, Azorin, Miro eta beste asko irakurri nituen eta. Egun ez zaio kasurik egiten, ez eta ulertzen ere, honelako lanen balioa. Egungo kazetaritza eta ordukoa oso ezberdinak dira euren artean»

Bat-batean, Francisco Ignacio de Jauregik egin zuen euskarazko *Galbarioko-bidea*-ren ale bakarra berak duela bota dit irribarrez.

«1844koa da, eta munduan ez da honelakorik geratzen. Francisco Ignacio de Lardizabalena zen ale hau». Bere liburuak, duen altxorrik preziatuena zalantzarik gabe.

Bere lanen ardatz handia ere izan den Indietako Artxiboen ikertzeari buruz hasi gara orain. Zer dela eta murgildu zen abentura horretan ere. «Apaiz egin eta gero Erromara joan nintzen, Teologia Doktoretza eta Espiritualitatearen Historia ikasketak egitera. 1954ean, Huelvako elizbarrutiko seminarioan nengoen, Mazagon-eko kapelau bezala. 11 urtez, herri misiolari lana bete nuen ere, Sevilla, Huelva eta Cadizeko herrialdeetako hainbat lekutan. 1960an Buenos Aireseko misioan egon nintzen. Ondoren, 1967tik 1969ra bitartean, Sevillako Unibertsitateko kapelau izan nintzen. Ondoren, 21 urtez erlijio irakaslea izan nintzen Utrerako Institutuan, jubilatu nintzen arte. Orduan itzuli nintzen hona, 1990ean».

Sevillan 36 urte luze emateak aukera polita eskaini ziola dio. «Euskaldunek XVI, XVII eta XVIII. mendean Amerikarako bidean garrantzi handia izan zuten. Prestatutako jendea izatearen ospea zuten. Irakurtzen eta idazten zekiten gaztetandik, eta dirutza handiak egin zituzten. Indietako Artxiboan horren inguruko datu piloa zegoen, ia inork aztertu ez zituenak oraindik, eta horretan hasi nintzen».

ABC egunkariak Sevillan ateratzen zuen edizioarentzat 60 artikulutik gora idatzi zituela gogoan du, «hauetariko 35 euskaldunek Sevillan izan zuten paperari buruzkoak dira». Real Sociedad de Amigos del Pais-ek zuen Buletinean ere 129 artikulu idatzi zituen 21 urteren buruan.

Hauek Garmendiaren lan etengabearen adierazgarri bat besterik ez dira. Eusko Ikaskuntza, Eusko Jaurlaritza, Arabako Diputazioa, Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria eta beste hainbat erakunde eta publikazioekin kolaboratu izan baitu.

Liburuak idatzi ere bai, euskaldunak eta Amerikaren arteko harremanari buruzkoak. *Tomas Ruiz de Apodaca, un comerciante alavés con Indias (1702-1767)* izenekoa du maiteenetakoa. «Manurgakoa zen, eta inork ez zuen ezagutzen. Cadizetik mantendu zituen merkatal harremanak Indiekin, eta herritik 14 urterekin irten eta gero, dirutza handia egin zuen. Horrez gain, almirante izan zuen seme bat. Beste bat, Mexiko-ko azken Erregeordea izan zen, Venaditoko Kontea».

Gai honi buruz ere baditu bi liburu argitaratzeke. Bata Indietako Artxiboan dauden euskaldunen katalogoa litzateke, Indietan hildako euskaldunei buruzkoa bestea. Baina ez du argitaratzeko esperantza handirik. «Hemen oso gauza harrigarria gertatzen da. Badirudi honelako lanak ez zaizkiola interesatzen jendeari. Hori oso ikuspegi eskasa iruditzen zait. Garai batean egunkarietan argitara zitezkeen datu asko, baina egun zati txiki asko besterik ez dira agertzen. Ez da garai bateko artikuluentzako lekurik, eta ez naute erakartzen. Bidalitako artikuluak askotan ez dituzte argitaratzen, eta egiten dutenean, moztuta agertzen dira. Gauzak bidali eta kasurik egiten ez badizute, edota idatzi duzuna eraldatzen badizute, zertarako ibili sufritzen? Eta egunkarietaz ari naiz batez ere, jendeak egun ez duelako irakurtzen ia, egunkariak besterik».

Ez da damu arrastorik agertzen, ordea, bere hitzetan honelakoak botatzen dituenean. Eginiko lanak bete duela seinale. Oraindik ere badu indarrik bide beretik jarraitzeko. Iztuetaren bizitzaren inguruko datu berriak lortzen dihardu 70 urteko gizon honek. Hain maiteak dituen liburuen artean murgildurik. Horrelaxe agurtu dut joatean, hainbeste liburu eta artikuluren artean hamaikatxo aipatu gabe geratu zaizkigulako sentsazioz.

Amagoia Iban

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Obras inéditas de Iztueta, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968.
Iztuetaren olerkiak, Kardaveraz Bilduma 33. Tolosa 1978.

Haritxelhar

EUSKARAREN INDAR LASAIA

Angelun «Elorrieta» izen politeko etxe xumean bizi den baigorriarrak nolaz utzi al ditu bere sorterriko mendi mazela harritsuak? Alta bada, gizonak, ikusi orduko, bizia eta edertasuna maite dituela ororen gainetik nabari da.

Beste nonbait da apaltasun horren segeretua: euskarari hortzez eta haginez eskainia dion maitasunean.

Euskal Herrian ukan ditugun eta ditugun pertsonaia handien modura dabil: kanpokoei begira arrazoi eta jakintzaz blai, etsaigo iñorantarekin pazientzia eta errespetuz betea eta herrikideekin anaikor funtsezko batez jantzia. Beti, aldiz, su ta gar, euskara eta euskal kultura hunkitu orduko.

Euskaltzainburu denak aurpegi asko ditu Unibertsitalaria dager lehendabizi: Topet-Etxahuni buruz egin tesi nagusia erreferentzia iraunkorra da 1969.a geroztik. Pabeko maisu «Eskola Normalean» gerra garaian ikasketak egin zituenak eskola «laikoaren» gradu nagusia lortu zuen, «agregazioa». Horrela, gerra ostean, Lizeo batzuetan gaztelera irakasle abiatu zen.

Pilotari txapeldunak Piarres Lafitte zenarekin egin topaketa maite du aipatzea: «zerbait» euskararen alde egin nahi zuenari Uztaritzeko Seminarioko apaiz bakartiak liburu meta bat eskaini zion «zerbait egin zezan» hori guziarekin. Adiskidetasun isil indartsu eta emankorraren hasiera zen.

Etapa handia gertatu zen bere bizian, Bordelen, Lafon hizkuntzalariak bere «Euskararen katedra» Unibertsitatean utzi zuelarik, txanda hartu baitzuen 70. hamarkadaren lehen urtean. «Ikas» elkartearen sortzaileetarik zenak, 1958.ean, «euskara eskola publikoan» bere lema nagusi bati lehen urratsa eman zion. Geroztik, etengabe, sailari atxiki zaio.

Beste postu nagusi batean obra asko eraman zituen: Baionako «Euskal Erakustokiaren» zuzendari egon zelarik. Hor sortu eta garatu zuen aldizkari garrantzitsu bat, «Bulletin du Musée Basque», zuzendu zuena. Hor euskara, euskal kultura, historia, arkeologia mailako argitarapen oinarrizko frango eramanarazi zituen.

Euskal kulturari, euskarari, duintasuna onararazteko Haritxelharrek 81ean «Euskara eta Euskal Kulturaren Jardunaldiak» kudeatu zituen. Asanblada «Pizkundea» bilakatu zen, 14 urtez zuzendu duena, aurtengo udaberria arte. Bere prestigio, jakintza eta indarrak negoziaketa urte zailetan herriaren alde jarri ditu, hainbat gautako bilkura luze nekagarrietan.

Nondik ateratzen duen bere kemena ez da galde ezaxola. «Herria» astekariaren zuzendari-ordea, «Pilotarien Biltzarra»ko lehendakaria, Baigorriko auzapez egon zen ere! Hargatik, 1981.ean, Mitterrand-en sostengu komite batean egon zena, ez da

inolaz alderdikaria. «Euskara plazara» izango zukeen bere eslogana, laikotasunaren alde betidanik egon denak.

«Gehexan Pontto», bere sortetxeko jabe aspaldikoaren izena baliatuz, astero Herrian egiten digun begi keinua da. Euskara batua bere inguruan onartarazten duenak, Baigorri bere haurzaroko mundu gozoari egiten dio beti toki bat: nahiz intelektualen munduan hazi eta eskolatuak jende xeheak duela euskararen ahozko literatura miragarria sortu, ez du ahazten. Elorrien artean direla lili politenak badaki.

Lucien Etxezaharreta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Le poéte souletin Pierre Topet Etxahun, Amis du Musée Basque,1969.
L'oeuvre poétique de PTE, Euskaltzaindia 1970.
Être basque, Privat-Toulouse 1983.
Ser Vasco, Mensajero 1986.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Herria, Euskera, Asju, BRSVAP, Bulletin du Musée Basque.

Mariano Izeta Elizalde

BAZTANGO KRONIKALARIA

Denbora neurtzea izan da bere lanbidea. Baina denbora neurtu gabe eraman du bizitzan euskararen arloa, euskara suspertu nahirik, euskara maitea hil ez zedin hain zuzen: hara Mariano Izeta Elizalderen zaletasuna eta irrika, jaiotzetik jasoa. Erlojuak konpondu eta saltzea: hara Mariano Izeta Elizalderen lanbidea, aita zarauztarrarengandik ikasia.

Elizondon 1915eko Uztailaren 14ean jaioa. Baztango euskal nortasuna gordetzen inork gutxik bezala lan egin du harrezkero, Baztango bertako euskara gorde nahi izan du, eta horregatik Elizondon eta inguruetan hitz egiten den bezalaxe idatzi du beti, ondo jabeturik euskara hori ulertzeko nekerik ez zuela inork izango eta orobat Nafarroako euskalkia gorde behar zela, eta ahalik eta azkarren gorde behar zela, galduko ez bazen.

Eta euskara bezala, Baztango ohiturak ere gorde nahi izan ditu:

—Baztango gauzekin maitemindurik nago -esan zidan, bere hitzetan zalantzaren izpirik azaldu gabe.

Baztango gauzak ditu kuttunago, baina Euskal Herri osokoak ere maite ditu, batez ere hizkuntzarekiko guztiak. Mutildantza ere dantzatu izan du urtetan eta urtetan, 1933an hasita, dantzako aurresku edo lerroburu izan baita bera.

Hamalau urte zituen arte egin zuen herri eskolako buelta, nahiko erdarazale zen Elizondo hartan. Harrezkero, lana izan du bizitza. Baita lanaren ondoan, afizioak ere. Eta afizio horien artean, gerra aurreko giro abertzale eta euskaltzaleak bultzatu eta agian suturik, euskara ere lantzen hasi zen. Foklorea eta folkloreaz gainera, hizkuntza bera ere aztertu eta bereganatuz.

—Dendan ikasten da euskaraz.

Dendara herriko eta inguruetako herrietako jende euskalduna iristen baitzen, erloju bila edo erloju konponketara.

Gerra aurrean "Argia" hartzen zuten etxean, eta ustekabean, inolako ahalegin berezirik gabe, lehendik zekarren zaletasuna sutu zitzaion.

Ikusmen txarragatik libratu zen gerratik, eta arazo gehiegirik gabe pasatu zituen ondorengo urteak, abertzaleen artekoa bazen ere: hogei duroko isuna ezarri zioten, orduan esan ohi zen bezala, "aurrera xamar ibilia zelako".

Aski debekaturik zeudenean, euskal gauzak indarberritzen saiatu zen beste hainbatekin batera, Maurizio Elizaldekin, adibidez.

1957an hasi zen idazten *Zeruko Argia* asterokoan hain zuzen ere. 1960ean "Herria" aldizkarian, Elizondo eta inguruetako berriak emanez. Urte berean, Nafa-

rroako Diputazioak argitara ematen zuen "Príncipe de Viana" aldizkariaren gehigarrian. "Diario de Navarra" egunkariak larunbatetan atera ohi duen orrian presente dago gaur oraindik, hutsik egin gabe, Mariano Izeta.

1962an "Dirua Galgarri" polizi-nobela argitaratzen du. Donostian garai hartan, Euskaltzaindiaren Adiskideak delako elkarte batek egin zuen lehiaketara aurkeztu zuen eta, sariketa hura alferrik galdu zelarik, zorionez zakarrontzirik libratu ere bai.

"Nigarrez sortu nintzen", haur jaioberri utzi baten bizitzaren elaberria argitaratu zuen 1982an, benetako gertakaritan oinarritua. Beste zenbait ipuin ere baditu eginak.

"Baztango Hiztegi Ttipia" Euskaltzaindiak argitaratu zion zati bat, baina oraindik osatzen dihardu. Orobat, Baztan aldeko esaldi eta errefrauak jaso ohi ditu, bere belarrietara iritsi bezain laster bere paperetan idatzita jarriz.

Gaur, beraz, atertu gabe segitzen dio Mariano Izeta Elizaldek bere zaletasunari: euskara du pasio, eta pasio hori indartzen dabil, harik eta bere erlojua geldi dadin arte:

—Ni ez naiz sekula geldirik egongo... jarraikiko dut nire zaletasunean hil arte.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Dirua Galgarri, Auspoa 1962.
Nigarrez sortu nintzan, C.A. 1982.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Herria, Diario de Navarra, euskaldunon Egunkaria, Plazara, Principe de Viana.

Federico Krutwig Sagredo



GREZIA BAITA JAKINBIDE

Jakin: hara Federiko Krutwig defini dezakeen hitzetako bat, gizakiaren bizitza ez baitu hertsitzen hitz bakar batek.

—Jakitea erligione bat bezala dateke –aitortzen du berak–. Nik ez dakit zertara etorri garen mundura; hiltzean, zerbait ikasi dugula esateko beharbada, greko batzuek esaten zuten bezala.

Federiko Krutwig Sagredo Getxon jaio zen, 1921eko maiatzaren 15ean. San Isidro eta Mendekoste eguna. Aurora boreal gorrizta batek –ohikoa urdina denean– estali omen zuen Europako iparralde osoa gau hartan, Federiko berari kontatu ziotenez.

Aita alemana, ama bizkaitarra baina jatorriz veneziarra tanta frantses batez hornitua. Hizkuntza anitz ikasia. Euskara bera ere erdia liburuetan ikasi zuen, eta beste erdia berriz etxean zuten neskame euskaldun baten ahotik.

Bederatzi urtez luzatzen den batxilerato alemana egin eta unibertsitatean ekonomia eta zuzenbidea ikasi zituen. Ikasi eta ikasi: Parisen eta Bonnen ere ikasiko zuen geroago.

Gerra garaian, Bilbo utzi eta Lisboara joan zen familia osoa, eta han portugesa ikasi zuen, noski. Baina, gerra aurretik dagoeneko, euskara ikasi eta berehala, euskaraz bazekiela esango zukeen ziurtagiri bat eskuratu nahirik, Oleagaren bidez Azkue berarenganaino iritsi zen. Bere lantxo batzuk Euskaltzaindiko presidenteari erakutsi, eta 1942an agiria eman zion. Harrezkero, adiskidetasun bero batek lotu zituen bi gizonak (Azkue hil zenean, alboan zegoen Federiko).

—Niretzat nire aitona zen ... Oso maite ninduen.

Euskaltzaindia ez zuen debekatu Frankoren diktadurak, baina nahiko lur jota zegoen inondik ere. Horregatik hura eraberritzen saiatu zen Krutwig, eta atzerrian aurkitzen ziren euskaltzaleekin harremanak berritu zituen. Isidoro Fagoagak gomendaturik, euskaltzain berriak bilatu ere bilatu zituen: Lafitte, Lafon, Villasante, e.a.

Luis Villasante sartzeko gomendioa berak eman zuen. Eta 1952an Villasanteren sarrera hitzaldiari Federiko Krutwigek eman zion erantzuna, gogoratuz Elizak munduko beste lurraldetan, hango hizkuntzen alde egiten zuena, ez zuela egiten hemen. Hitzaldi horren ondorioz, segituan alde egin behar izan zuen, muga atzean utziz. Ordurako idazten hasia zen: poesia, e.a. *Gernika* aldizkarian idazten du, beste hainbatekin batera.

Muga igaro eta Lezo de Urreztieta eta Jagi mugimendua ezagutzen ditu, beste hainbat gizon ezagutu zituen bezala, hala nola Jon Mirande. Eta berehala Parisen,

Unibertsitatera jotzen du, Ekialdeko hizkuntzak ikastera: pertsera, tamil, urdu-industani eta bengaliera. Alemaniara joan eta Krupp enpresan indiarrekin lan egin zuen.

Erroman zegoela, ordea, "Museo della Latinità" museoan konbertsio kasik osoa izan zuen Federiko Krutwigek: konturatu zen bera ez zela hindua kulturaz, grekoa baizik. Eta gainerako gauza guztiak utzi eta greko ikasteari ekin zion.

Dena utzi eta Euskal Herrira, Hendaiara zehatz esanda, itzultzen da. Fernando Sarrailh de Ihartza ezizena erabiliz, *Vasconia* idatzi zuen (1963), Euskal Herriaren nortasuna erreibindikatuz. Liburu hau zela eta, Espainiako gobernuak bultzatuta, Belgikara alde egin behar izan zuen, Frantziako gobernuak kanporaturik. Garai horretan argitaratzen du *La Cuestión Vasca* (1965)

ETAren V. asanbladara bi txosten bidali zituen (1967), garrantzia handikoak biak ere. Bi fronteak markatzen ditu, eta fronte goiena kulturakoa dela adierazten, eta haren azpian jarri behar direla gainerakoak.

Aro horretan idazten ditu "Nacionalismo vasco y la revolución social" (11 artikulu), "La política y futuro de Euskalerria" (9 artikulu), "Nacionalismo revolucionario y estrategia guerrillera", "Los movimientos étnicos en Europa occidental", "Estrategias de las luchas de liberación nacional en Europa". Gogora Federiko Krutwigek, Fernando Sarrailh de Iharza ezizenaz gainera Hobeko de Garralde, L. Fernandez eta G. Zúñiga erabili dituela. Orobat, Mao-tse-tung euskaratu zuen: Praktikaz (1968), Liberalkeriari aitzi (1968), Liburuxka gorria (1970).

Belgika utzi eta Erromara doa eta lau urte egingo ditu han, berri ajentzia batean, Italian zehar beste egonaldi batzuk eginez, ordea.

Euskadiren arazoak kezkaturik, *Vasconia y la Nueva Europa* (1976) eta *Computer shock Vasconia* idatzi zituen. Baina, Federiko Krutwig benetan eta sakonki kezkatu duena euskara izan da, eta euskararen egoera.

Egoera hau goititzeko, grekerak euskara ernal dezan ezinbestekotzat jotzen du, lapurtera zaharra euskararen eredutzat hartuz inolaz ere. Grekerak bultzaturik sortuko da kultur-hizkuntza, Krutwigen ustetan. Eta hori frogatzeko bederatzi

tomoko obra idatziko du (lapurtera zaharra erabiliz funtsean) eta *Jakintza baita*, aldizkari eta guzti, sortuko du grekera klasikoa suspertzeko.

Eta gaur lan horretan segitzen du atergabe: grekera klasikoa irakasten eta zaletu berriak egiten. Grekera klasikoa baita, azken finean, Europari bere sorrerako izpiritua itsatsi diona, pentsamendu logikoa han sortu baitzen. Hartaz, euskarak ere grekera klasikoko izpiritua bereganatu beharko da, Federiko Krutwigen ustetan, etorkizunik izango badu.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Vasconia, 1962.
La cuestión Vasca, 1966.
Vasconia y la Nueva Europa, 1976.
Garaldea, 1978.
La Nueva Vasconia, 1979.
Mikelditarrak, Haranburu, 1979.
Ekhaitza, Haranburu 1980.
Igibarziaren iphuiak, 1981.
Jakintza baitha, 1982.
Otsoaren bidean, 1982.
Erroten burgiko mysterioa, Haranburu, 1982.
Harbelnoren amazonak, 1982.
Mystegintza zaharra, 1982.
Otsoaren bidea, 1983.
Ortziren zaldiak, Haranburu, 1983.
Garaziko ohianaren thauma, Haranburu. 1983
Sua ez da hilten, Haranburu, 1983.
Computer Shock Vasconia, 1984.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Euskera, Gernika, Euzko-Gogoa, Egan, Tierra Vasca, Branka, RIEV, Deia.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo

ITZULPENAREN ZAILTASUNAK EGIN NINDUEN IDAZLE

Errenterian maistra zuen ama, eta 7 urte zituenean eskolara hurreratzerako bazekien irakurtzen eta idazten eta, orobat, lehen ariketak egiten ere. Gurasoak euskaltzaleak izan arren, ez zuen irakurri ezer euskaraz haurretan.

Errenterian jaio zen Jose Antonio Loidi Bizkarrondo, 1915eko abuztuaren 22an. Hamar urte zituela batxillerrari ekin zion Donostiako marianistetan. Gerra aurrean aitak bazuen altzari fabrika bat, baina itxi egin behar izan zuen geroxeago.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo garai horretan gaixotu egin zen, eta unibertsitatean egin nahi zituen arkitekturako ikasketak geroko utzi behar izan zituen. Gerra garaian Bizkaian eta Santandarren ibili zen. Aitak Frantziara ihes egin zuen, eta horri eskerrak salbatu ere salbatu zen, zeren, etxean geratu zen apez bat, On Gerbasio Albisu, Loidiren (aitaren) laguntzaile zelako afusilatu baitzuten. Jose Antonio bera, berriz, laguntza-zerbitzutan aritu zen, eta Santoñakoa gertatu zenean, ihes egin eta Orioraino iritsi zen. Han, hobe beharrez, agintari frankotarren eskutara eman eta kontzentrazio-zelaira joan behar izan zuen Gasteizera. Handik Burgosera, eta handik azkenik etxera. Ondoren soldaduska joan behar izan zuen –beste askok bezala– eta Donostian egin ere egin zuen.

Arkitekturako asmoak alde batera utzi behar izan zituen –besteak beste, gobernuak ondasun guztiak konfiskatu zizkielako–, eta karrera errazago bat hautatu beharrez, farmazia hautatu zuen. Lehen urtea Madrilen eta gainerakoak etxetik egin zituen, maisurik gabe, baina arrebaren laguntzaz, inolaz hura farmazia karrera egina baitzen. Guztia Orion, han konfinaturik zegoela. Hiru urte Pasai Donibanen egin ondoren, 1943an Irunera joan eta ireki zuen botika.

Gerra aurrean idazteko zaletasunik ez zuen oraindik Jose Antonio Loidik, euskaraz idaztekorik bederen:

—Gero konturatu nintzen, handik urte batzuetara, nik euskaraz banekiela, baina irakurtzen ez nekiela, eta idazten batere ez –esaten du berak, ezkondu eta gero ikasten hasi zela aitortuz.

Bere kasa ekin zion euskara sendotzeari, orduan zeuden liburuak eta testuak erabiliz. Euskara ikasten ari zela, Maigret komisarioaren nobelak euskaratzeari ekin zion, ariketa gisan lehenbizi. Baina zailtasunak ikusirik, nobela bat bere kabuz idatziko zuela erabaki zuen. 1955. urtea zen.

Eta hala idatzi zuen urte horretan bertan Euskaltzaindiko aipamen berezia jasoko zuen *Amabost egun Urgaine*-n nobela, kolpetik izugarrizko arrakasta izan zuelarik (gerora 9 argitalpen izan ditu euskaraz eta hainbat hizkuntzatara itzulia ere izan da). Orduan izendatu zuten Urgazle ere.

—Eskema bat egin nuen eta hura bete gero –dio nobela nola idatzi zuen kontatzean.

Ipuinak ere idatzi ditu *Oarso* eta *Egan*en. Orobat *El Bidasoa*n historiari buruzko gaiak. Jose Antonio Zinkunegiren *El Mar* euskaratu eta *Egan*en argitaratu zuen (1957). Gazteleraz, berriz, jakintza arloko gaiak erabili izan ditu, eta aipamenak eta sariak jaso ere egin ditu. *Eskal Jaiak* liburua ere idatzi du, euskaraz eta gazteleraz. Poesia *Olerti*n argitaratu du. *El Agua en Irún* eta *El sexo en la farmacia*, erdaraz egindako bi liburu ditu.

Luis de Uranzu Kultur taldeko kide da eta *Boletín de Estudios del Bidasoa* beren aldizkarian hainbat artikulu argitaratu ditu euskaraz eta gazteleraz, toponimiaz, herriko historiaz, euskararen egoeraz, Bidasoako uraz, e.a. Ehundik gora artikulu idatzi ditu han eta hemen: *Egan*, *Olerti*, *Oarso*, *El Diario Vasco*, *La Voz de España*, *Bidasoa* etabarretan bere lumaren oparotasuna agerian ipiniz.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Euskal Jaiak/Fiestas Euskaras, Irungo Udala.
Hamabost egun Urgain-en, (9 argitaraldi).
Algunos aspectos del agua en Irún, 1974.
Documentos de Investigación Hidrológica.

Xabier Lopez de Gereño Arrarte



NARRAZIOAREN MATAZA NAHASTEN

Zaharren egoitzean, lasaitasunean eta bakean, ez geldi, ez moteldurik, bizi da Xabier Gereño, idazle egintza zabalduz, gaztelera ere guztiz bere eginik. Pianoa jotzen ikasi zuen haurretan, eta idazteko makina ere erabili behar izan du urtetan. Gerora idazle izateko orduan, bi ekintza horiek erraztasun handia eman diote:

—Oso azkar idazten dut –aitortu zidan berarekin solasean ari nintzela–, hatzak azkartasun handiz mugitzen ditut, eta ordutan egon naiteke idazten.

"Zerekin idatzi balitz arazo, zer idatzik ez luke nekerik", utzi zuen idatzita norbaitek hortik zehar. Zer idatzi ez da arazo inondik ere Xabier Gereñorentzat:

—Oso erraz asmatzen eta korapilatzen ditut gaiak –azaldu zidan geroxeago Xabierrek, harrotasunik gabe–, atsegin hartzen dut mataza nahasten eta askatzen.

Zerekin eta zer idatzi, biak kateatzen asmatu du Xabier Gereñok bere 70 inguru liburuetan.

Xabier Gereño Arrarte, 1924ko abuztuaren 12an jaioa. Bilbotarra. Etxean ikasi zuen euskara, amaren ahotik. Baina euskara hobetu, "Josutxu" meza-liburuaz hobetu zuen. Haurretan Bilbon bizi izan zen, baina gerrak Agurainen harrapatu eta aita Bizkaiko Aurrezki Kutxatik bota eta lanik gabe geratu zenean familia osoak Las Palmas de Gran Canariara alde egin behar izan zuen. Hiri goxo hartan ikasi zuen merkataritza.

Baina Bizkaiko Diputazioko liburutegian, Frankoren aldekoek sartu eta euskarazko liburuak eraman nahi izan zituztenerako, hango kontserje zen Arrieta izeneko batek hainbat liburu ezkutatu zituen palazioko sotoan, eta Xabierren aitaren adiskide zenez, hark utzi zizkion euskarazko liburu haiek isilpean irakur zitzan.

Batzu-batzuekin ohiko zen bezala, Xabier Gereñok ere urtero bisitatu ohi zituen Bilboko komisaldegiak, hain zuzen ere maiatzaren lehenaren bezperan edo aberri eguna zetorrenean edo gisako aukeretan: bi egunez barruan egon eta libre uzten zituzten ondoren, orduko agintariek susmo txarra baitzeukaten halako gizonekiko.

Bilbora itzuli eta *Aeronaútica* fabrikako bulegoan egunoroko ogia irabazteaz batera, hainbat ekintzari heldu zion. Musika atsegin duenez, Txistulari elkartea sortu eta *Txistulari* eta *Dantzari* aldizkarietan ibili zen. Iparralde eta Hegoalde, hainbat ekitaldi eta jaialdi antolatu zituen garai gogor haietan.

Euskal musika, herri musika, tabernan kanta ohi dena zaharkiturik zegoela iritzirik, euskal abesti berrien txapelketa eratu zuen Bilbon, San Remoko txapelketa eredutzat harturik, Herri Irratian lanean ari zela... eta zentsura aurkitu zuen, noski, bidearen erdian enbarazu eginez. Txapelketa horietan azaldu ziren Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi eta beste hainbat. Baina zentsurak –Pilar Careaga zen orduan alkate Bilbon– lehiaketa gehiago egitea debekatu zion.

—Ate bat ixten didatenean, beste bat ireki: hori da nire filosofia –agertu zidan irribarrez–, eta ate guztiak ixten badizkidate, leihoa irekiko dut.

Eta horrek eman zion bide idazten hasteko, ez ordea aurretik Cinsa diskaetxea sortu gabe. Julen Lekuonaren diska argitara izanak gartzela ekarri zion bigarrenez; lehen aldian Bilboko akademia batean euskara irakasteko gela bat alokatu zuelako eraman baitzuten espetxera.

On Klaudio Gallastegiren laguntzaz eta baimenez, San Anton orfeoia sortu zutenetakoa da.

1965ean argitaratzen du bere lehen obra, antzerkia alegia: *Zein da errudun*, eta segidan *Nobi bat behar dogu* (1966). Liburu errazak idatzi ditu: mundu osoan zehar halako arrakasta zuten polizi-liburuak ekiteari ekin zion. Irakurle ohitu gabeari hurbildu asmoz inolaz, hantusterik gabe. *Andereño*, *Jurgi Kapitaina Hong-Kong'en*, *Jurgi kapitaina Bretainian*, e.a. dira horren lekuko. *Antonelo Euskal Herrian* izan du bere liburu arrakastatsuena. Urtetan ikusi ahal izan dugu Durangoko Azokan, bere emaztearekin batera, bere liburuak saltzen, azokako hotz handia nola edo hala uxatuz.

Behin idatzi ondoren, hiru bider gutxienez aztertzen ditu bere liburuak argitara eman aurretik, bere asmoa literatura handia egitea baino, euskarak eta euskal irakurle xumeak zituzten premiei erantzutea izan baita gehiago.

Gazteleraz ere idazten hasi da ingurukoen eskariei erantzunez: *Residencia Rochester* eta *Carta Fatal* liburuak hala egin ditu, lehengo bidetik, bere ohiko gaiak erabiliz.

Zaletasun asko dituen gizona Xabier Gereño: filatelia, musika (aitaren eta amaren ereduari jarraiki). *Txistulari*, *Karmel*, *Dantzari*, *Zeruko Argia*, *Anaitasuna*, *Aizu*, *Egan* aldizkarietan idatzi du.

Gaur, zaharren artean kasik gazteen, bere afizioei eta zaletasunei ez die uko egin eta idatzi egiten du, gaztelaraz eta euskaraz.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Arantza artean, Itxaropena, 1969. Eleberria.
Argi bat iluntasunean, Kriselu-lur, 1970. Eleberria.
Nora naramazue, Kriselu-Lur, 1972. Eleberria.
Hiltzaile baten bila, Kriselu-Lur, 1975. Eleberria.
Andereño, Kriselu-Lur, 1975. Eleberria.
Gudari bat, Kriselu-Lur, 1977. Eleberria.
Iruineako Asasinatzea, Kriselu-Lur, 1977. Eleberria.
Espioitza, Kriselu-Lur, 1977. Eleberria.
Jurgi kapitaina Bretainian, Xabier Gereño, 1978. Eleberria.
Osaba Gabrielen Asasinatzea, Xabier Gereño, 1978. Eleberria.
Xantaia Kontesari, Xabier Gereño, 1978. Eleberria.
Mitxino katua pozoiez hila, Xabier Gereño, 1979.
7 teatro lan, Xabier Gereño, 1979. Antzerkia.
Faro madarikatua, Xabier Gereño, 1981. Eleberria.
8 teatro lan, Xabier Gereño, 1982. Antzerkia.
Jurgi Kapitaina Hong Kong-en, Xabier Gereño, 1982. Eleberria.
Antonello Euskal Herrian, Xabier Gereño, 1983. Eleberria.
Andre Catalina eta Arabiako Emira, Xabier Gereño, 1984. Eleberria.
Gerra ezkutua, Xabier Gereño, 1984. Eleberria.
Milia eta bere tenientea, Xabier Gereño, 1984. Eleberria.
Setiatuak, Xabier Gereño, 1985. Eleberria.
Sabotaia, Xabier Gereño, 1985. Eleberria.
Ametsetan galduta, Xabier Gereño, 1985. Eleberria.
Iheslaria, Xabier Gereño, 1986. Eleberria.
Simon Goldmayer-en Bahiketa, Xabier Gereño, 1986. Eleberria.
Zeledonio sastrea, hori bai desastrea, Xabier Gereño, 1986. Antzerkia.
Gadafi hiltzeko agindua, Xabier Gereño, 1987. Eleberria.
Euskal Espioiak Nazien aurka, Xabier Gereño, 1988. Eleberria.
Kikili eta Kokolo Chile-n, Xabier Gereño, 1988. Eleberria.
Jomeiniren paradisuan, Xabier Gereño, 1988. Eleberria.
Afrika Beltzean, Xabier Gereño, 1988. Eleberria.
Zu ez zara Marcel, Xabier Gereño, 1988. Eleberria.
M-7 Ajentea, Xabier Gereño, 1988. Eleberria.
Kikili, Kokolo eta Rivoltosa, Xabier Gereño, 1989. Eleberria.
Mafiak hil zuen, Xabier Gereño, 1989. Eleberria.
Kikili eta Kokolo Espioitzan, Xabier Gereño, 1990. Eleberria.
Amazonioa-ko Misterioa, Xabier Gereño, 1990. Eleberria.
Alferrik hilak, Xabier Gereño, 1990. Eleberria.
Xai Xai-tik hurbil, Xabier Gereño, 1990. Eleberria.
Odolezko ezteiak, Xabier Gereño, 1990. Eleberria.
Jostailu garestia, Xabier Gereño, 1991. Eleberria.
Drogen munduan, Xabier Gereño, 1991. Eleberria.
Zuriz jantzitako emakumea, Xabier Gereño, 1991. Eleberria.
Kuwaiten harrapatuak, Xabier Gereño, 1991. Eleberria.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Zeruko Ariga, Anaitasuna, Txistulari, Dantzari, Bilbao, El Mundo.

Inozentzio Olea Ariztimuño

HITZ EGIN BAINO BERTSOTAN NAHIAGO

Bertso zaletasunak eraman du Inozentzio Olea idaztera. Bertsoak jarri, alde batetik, eta artikuluak aldizkari eta egunkarietan idatzi bestetik: hori izan da bere egintza.

Zerainen jaio zen Inozentzio Olea Ariztimuño, 1921eko abenduaren 28an, bederatzi senidetan gazteena.

Bertsolari baino gehiago, bertsojartzaile izan da. Etxetik datorkio inolaz zaletasuna: etxean entzunak baititu bertso zahar ugari amaren ahotik edo arrebarenetik. Agian, anaia itsuak argituko zion bidea, bera baitzen Inozentzio haurtxoaren sehaskari eragin behar ziona, eta etengabeko bertso kantuz eragin ere eragiten baitzion.

Lehen eskola Segurako mojen gaztelerazkoa izan zuen hiru urte zituela, jaiotetxetik harako bidea erosoago egiten zitzaielako. Bost urte zituela, berriz, Zeraingoan hasi zen, baina ordurako bazekien irakurtzen, aitak irakatsita. Gazteleraz irakatsi zion aitak inondik ere, etorkizun hobea prestatzeko asmotan.

Zeraingo eskolako maixuaren semeak, ordea, Klemente Garin delako batek, jarri zion eskuetan euskarazko lehen liburua. Eta han hasi zen lehen aldiz euskaraz irakurtzen. Idazten berriz:

—Eskolan genbiltzela, ba, gure kantuak-eta, bertso-paperak, izan ohi ziren gehienean. Eta batek bertso-paper bat bazuen eta besteak beste bat, egiten genuen kopiatu batak bestearentzat... han ikasi nuen euskaraz idazten.

Zeraingo eskola amaitu zenean, Segurako fraileengana joan zen ikastera. Eta horretan gerra etorri zen, eta zigorra ere ikusi zuen etxean hurbiletik Oleak. Eta gosealdia etorri ere etorri zen. Berehala iritsi zen, berriz, soldaduska eta hura bete ondoren, Legazpira joan eta fabrikan hasi zen lanean.

ARANTZAZU aldizkaria hartzen zuten etxean, eta han etorri ohi ziren bertsoak irakurriz hasi zen bereak moldatzen. Horrekin batera, irratiz eman ohi ziren bertsoak, batez ere Basarrirenak entzunez osatu zuen karrera.

Plazan kantatzeko gauza ez zela konturaturik, bertsoak jartzen hasi zen, hain zuzen ere *Olerti* aldizkarian. Ondoren, egunkarira bidaltzen hasi zen, Basarriren bidez argitaratzeko. Xenpelar saria ere eskuratu zuen behin baino gehiagotan. Loiola irratiko bigarrena ere berea du.

Horretan, azkenik, bi liburu argitaratu ditu, bertsoz osatuak: *Goierriko lora* eta *Ote motxeko arnasa.*

—Orduan, esan nahi nuena, nere barruak agintzen zidana, bertsotan errazago esaten nuen, hola hizketan baino –aitortzen du berak lano.

Bertso zorrotza izan du gogoko beti Inozentzio Oleak; bertso gexaren kontrako amorratua da, inolaz. Eta horregatik bere bertsoen bidez kritika ere oparo egin du.

Bertsoa utzi gabe, inolaz, prosari, hitz lauari heldu dio Inozentzio Oleak eta, euskararen jatortasunari garrantziarik handiena eskainiz, *Legazpiko Hots* eta *Ene Bada* aldizkarietan, *Zeruko Argia*n eta *El Diario Vasco* egunkarian artikulu ugari argitaratu du, egunoroko bizitza gaitzat harturik, eta sarri garai bateko eta gaurko bizitza gonbaratuz, edo hango eta hemengo gertakariak komentatuz.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Goierriko lorak, Auspoa 1970.
Otemotxeko arnasa, Auspoa 1984

Prentsa idatzian kolaborazioak:

El Diario Vasco.

Joan San Martin Ortiz de Zarate



BALDIN JAKINTZA ARBOLA BALITZ

Joan San Martin Ortiz de Zarate Eibarren jaioa dugu, 1922ko Ekainaren 23an, eta San Joan egunez bataiatu zutelako ipini ere ipini zioten Joan izena. Armagin familiako, armagintzarako nahi zuten gurasoek, eta hala ikasi ere ikasi behar izan zuen.

Armak, ordea, bestelakoak nahi Joan San Martinek, eta gerora bederatzi musen armak hautatuko zituen bere gogoz eta gogotik. Jakintzen eta arteen arlo guztietara

iritsi nahirik ibili da eta dabil ahaleginetan gaur oraindik, bere liburutegi oparoan barna.

Hogei urte inguru zituenean euskaltzaletu zen Joan San Martin, eta euskararen balioaz eta gorabeherez behin betirako kezkatu. Ordurako, edozein modutan, mendiaz maitemindurik zebilen –eskalada egiten zuen Pirinioetan eta Alpeetan, 1950ean Naranco de Bulnes igo zuen (hiru bider igoko zuen guztira urte haietan)–, eta mendiarekin batera, argazkiaz –Indalezio Ojanguren izango zuen maisu–, eta espeleologiaz –Gesaltzako leizetik hasita, Aitzbeltz eta San Martingo Harriraino–, eta etnologiaz –ondo ikasiko zuen urte haietan laborarien eta artzainen berri, haiei eskatzen baitzien aterbe sarritxo, haiekin hitz egiteko parada paregabea sortuz–, etnografiaz –1966ean Luis Pedro Peña Santiagorekin batera argitaratu zuen *Estudio etnográfico de Urraul Alto*–, eta arkeologiaz –Santimamiñen jardun zuen Jose Miel Barandiaranekin–.

Idazteko bide ere mendiak eman ziola esan liteke kasik: Eibarko klubeko presidente izan zen –mendi federazioko presidenteorde ere izan zen, eta Merezimenduko zilarrezko domina dauka, inork gutxik bezala–, eta bertako aldizkarian hasi zen euskaraz idazten, garaiko askoren iritziz euskaraz idaztea alferrikako gauza bazen ere; orobat argitaratu zituen bere lanak Pyrenaica aldizkarian ere.

Artea izan da Joan San Martinen zaletasunik handienetakoa. Eta artea ikertzen eta artea bilatzen aritu da sarri. 1974ean *Euskal artea* argitaratu zuen. Baina *Gogoz* eta *Bidez. Euskal Herriko gauzak* liburuak –hainbat lekutan, egunkarietan batik bat, argitaraturiko lanen bildumak biak– izan litezke gure idazlearen kezken lekukorik garbienak.

Baina ezer badugu, euskal idazle dugu Joan San Martin. Joan San Martin bera baino zaharragoak dira, hein batean, Egigurendarra eta Otsalar. Egigurendarrak kontakizunak idatzi zituen. Otsalar, berriz, poeta zen. Euskal poesia berritzen saiatu zena. *Euzko-Gogoa*n agertu zituen bere poesiak hasiera hartan. Gero baita *Egan*en eta *Olertin* ere. Gizarteko arazoei heldu zien Otsalarrek inork baino lehenago.

1957an izendatu zuten Euskaltzain, eta harrezkero saiatu da, eta biziki saiatu ere, Euskaltzaindia indartzen. Erakundeko idazkari izan da urtetan, eta Jagon saileko buru.

Joan San Martinek idatzi duenean, zerbait egiaztatzeko idatzi du gehienetan. Eta hala ulertu ere ulertu behar dira zenbait liburu: gertakari edo maxiaketa baten erantzun gisan, alegia.

1959an argitaratu zuen *Juan Antonio Mogel eta Urkiza, bere bizitza eta lanak.* Euskaraz idatzi zitekeela erakusteko argitaratu zuen.

1960ean dator *Zirikadak*, Eibarko euskalkian emanak. Eta hain zuzen ere euskalki bakoitzak bere balioa –kasuan, Eibarkoak– baduela egiaztatzeko. Halako pasadizoak irakurriz zaletu zen eibartar bat baino gehiago euskararekin.

1968an, berriz, eta berriro euskal idazlerik ez zegoela esan zuenari ahoa itxi nahirik etorri zen *Escritores euskéricos.* Ez zuen ipini *vascos*, berariaz euskaraz idazten zutenak jaso nahi zituelako, bidenabar euskal idazleen lehen zerrenda osatuz.

Uhin Berri antologia argitaratu zuen 1969an, berriro apologetaren gisan, euskaraz poesia, eta poesia ona, idazten zela frogatzeko, zalantzan jarri baitzuten Madril aldean euskararen gaitasuna.

1971ean *Hegatsez* etorri zen. Berriro ere ahoberoak isilarazteko. Euskaraz idazten zuena jende ikasia zela egiaztatu nahi zuen Joan San Martinek, eta gainera edozein gai erabil zitekeela euskaraz. Horrela han eta hemen ikasten ari zen jendeari eskatu zion lantxoren bat, eta osatu liburua.

Egan aldizkariaren zuzendaritzan egin dituen urteak ez dira ahazteko: hainbat eta hainbat libururen errezentsio, era guztietako gaiak erabiltzen zituzten hainbat artikulu, hainbat itzulpen argitaratu ditu aldizkari horretako orrietan. Baina inondik ere aipatu beharrekoak dira aldizkari horretan argitara emaniko itzulpen batzuk: *Zaldun bitxia* (1965), Michel Ghelderode-ren antzerkia, *Siñerako liburua* (1966) eta *Zezen larrua* (1983-1986), Salvador Espriu-ren poesia, *Kantak eta Poemak,* Bertolt Brecht-enak.

Beste bi ekintza ere aipatu behar dira Joan San Martinen bizitzan: liburuen hitzaurregile eta hizlari. Nekez da kontatzen zenbat libururi egin dion sarrera, zenbat idazleri lagun egin dio euskal letren plazara sartzen. Eta hizlari, Euskal Herriak egoera nahiko aldrebesa bizi zuenean, herriz herri ibili baitzen Joan San Martin honetaz eta hartaz hitzaldiak emanez.

Joan San Martinengatik zailago da esaten non argitaratu duen, non ez zuen argitaratu baino. Halere, hona non argitaratu duen, zerrenda osatu gabea: *Eibar*, *Euzko-Gogoa*, *Egan*, *Jakin*, *Karmel*, *Olerti*, *Zeruko Argia*, *Euskera*, *Eibarko Klub Deportiboko Boletina*, *BAP*, *Munibe*, *Buenos Airesko Euskalduna*, *Oviedoko Speleo*, *Pyrenaica*, *El Diario Vasco*, *Hoja del Lunes*, e.a.

Guzti horrekin, azkenik Ararteko izendatu zuen Eusko Legebiltzarrak, eta horretan jardun du urtetan Joan San Martinek, lehen poesiatan gaitzesten zuen injustiziari borroka eginez.

Baldin jakintza balitz arbola, Joan San Martinek goitik beheraino eta behetik goraino aztertu nahiko luke, erroak ahantzi gabe, adarrez adar; banan-banan ikertuko lituzke guztiak eta arbola osoa.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Juan Antonio Mogel, bere bizitza ta lanak, 1959.
Zirikadak, 1960.
Eztenkadak, 1965.
Uhin berri, 1969. Poesia.
Euskeraren inguruan, 1969.
Hegatsez, (elkarlanean), 1971.
Euskal Artea, 1974.
Gogoz, 1978.
Literaturaren inguruan, 1980.
Bidez, 1981.
Erromanikoa Euskal Herrian, 1983.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Egan-eko arduraduna urtetan eta hainbat egunkaritako kolaboratzaile izandakoa.

Karlos Santamaria Ansa

ZIENTZIA ETA HUMANISMOAREN SINTESIA

Hain da betea, hain da aberatsa, Karlos Santamaria Ansaren aurkezpena nola moldatu ez da erraza. Duela 10 bat urtera arte, parean suertatu zaizkion arazo guztiak erabili eta landu dituela esan daiteke. Ehuneko ehun da zientzi-gizona eta ehuneko ehun humanista, esate baterako, sintesi zail bezain emankorra eskainiz. Nazioarteko pentsaeraren eboluzioa bertatik bertara jarraitzen du eta, era berean, bere herriko arazotan murgil-murgil eginda dago.

Karlos Santamaria ezin da neurtu bere liburu soiletatik. Liburuak idatzi ditu, bai, lau bat, baina bere pentsamendua, bere ideiak zatika-zatika eskaini ditu, pildoratan bezala, orrialde eta erdiko artikuluxkatan. 1.000 bat artikulu publikatu ditu. Artikulu-gizona da Karlos Santamaria. Pentsa lezake norbaitek bere pentsaera dosi txikitan ematen duela eta, pentsamendu propio gutxikoa dela, ez duela pentsaera eginik. Ezta hurrik eman ere Karlos Santamariaren kasuan. Bere obra sakabanatu guzti horretan koherentzia harrigarria dago, pieza asko baina ezin egokiago elkarri josiak, bizkarrezur sendoa, printzipio finkoak, malgutasun azkarra. Teoria eta errealitatearen uztarketa paregabeak. Pertsonalismoak egosten du guztia. Bere abertzaletasun eta euskaltzaletasunaren oinarrian bertan ere sustrai etnikoak barik, pertsonalistak daudela esan genezake. Pertsona ez da indibidualtasunean agortzen den gizabanakoa, bere historian eta gizartean kokatzen dena baino. «Enracinement» kontzeptua, testuinguru honetan, kontzeptu giltzarria da.

Bere lanak definitzen du hobekien Karlos Santamaria. Baina bere lanaren bidez ongi definitzea ez da samurra. Hain gauza diferenteak egin ditu, pertsona diferenteen lanak ematen dute eta ez pertsona bakarrarenak. Begira: metereologoa, matematika-irakaslea, irakaslekuen sortzailea, Donostiako Solasaldien eratzailea, euskararen normalizazioaren bultzatzailea, *Zeruko Argia* eta *Jakin* aldizkarien berritzailea, EKNko Hezkuntz Kontseilaria, *Pax Christi*-ko idazkari internazionala, idazle emankorra.

Karlos Santamaria diferente asko dago, jendearen iritzira. Batzuentzat Karlos Santamaria Donostiako Solasaldietakoa da, beste batzuentzat irakasle bizi eta interesgarri hura, beste batzuentzat Igeldoko metereologia-arduraduna, beste batzuentzat Lizeo Santo Tomaseko sortzailea, beste batzuentzat *Pax Christi*-ko idazkaria, beste batzuentzat euskal aldizkariak eta euskara batua bultzatzen sutsuki aritu zena. Karlos Santamaria asko dago bai, eta lanak ditu Karlos Santamaria bere osotasunean biltzeak. Jende gehienak alor bateko, eta gehienez biko Karlos Santamaria ezagutzen du.

Aipaturiko proiektu eta lan guztiotan sortzaile eta bultzatzaile izan da beti. Zenbaitetan hutsetik sortuz errealitate berriak eta beste zenbaitetan hobekuntzak edo aldaketak barrutik eraginez. Bietan, sortzaile eta bultzaile gisa, Karlos Santamariak

elkarlanean gauzak egiten asmatu du. Ez dut sekula protagonista ikusi, bidelagun izaten jakin du, ibili den tokietan apal eta umil ibiltzen asmatu du, taldean eta jende gaztearekin lan egitea atsegin izan du beti.

Karlos Santamaria maisu (izan) da, bai irakasle gisa eta bai idazle gisa. Haren ikasle guztiek aho batez aipatzen dute «Don Carlos»en dohai hori, pedagogoarena. Haren artikuluak maisu-lanak dira bi adieratan: perfekto tajutuak direlako eta beraien izaera didaktikoa nabarmena delako. «Herriko maisu» deitzen dio Joxe Azurmendik.

Esan dut arestian bere lanak definitzen duela Karlos Santamaria. Erantsiko nuke orain: bere lanak eta lan egiteko estiloak. Ez zuen bere iritzia inposatzen bileretan, baizik eta iradoki, proposatu. Harengandik ikastea ez zen zaila, osmosi bidez gertatzen bailitzan. Rikardo Arregi zenak bazekien horretaz zerbait. Kontu egin urte haietan, 1968 aldera, gaxteak ginela gu eta Karlos Santamariak 60 urte hur zituela, *Pax Christi*-ko idazkari internazionala zela, artikulugile ospetsua, irakaslea. Eta, halere, ez zigun bere ikuspunturik ezartzen. Orain, oraingo distantziatik, neurtzen dut hobeki jarrera horren meritua.

Karlos Santamariaren lanetatik ez dakit historiak zer nabarmenduko duen. Berebere obra berezia Donostiako Solasaldi Katolikoak edo «Conversaciones Católicas Internacionales de San Sebastian» izenekoa dateke. Europako intelektual katoliko hoberentxoenak bildu ohi zituen Donostian, bakea eta gerra, elkartasun internazionala, giza eskubideak, nazioarteko ordenua, tolerantzia eta kontzientzi askatasuna, eta abar pentsatzeko, eztabaidatzeko. Sekulako garrantzia aitortzen zaie saio hauei bai garai hartako Espainiako katolizismo itxiari begira eta baita ere Europako pentsamendu berritzeari begira.

Izen propioarekin historiak aipatuko ez baditu ere, eta horregatixe agian, Karlos Santamariak sarri isilean egin dituen lan batzuk aipatu nahi ditut hemen. Irakaskuntzaren mailakoak lehenengo eta euskalgintzakoak gero.

Euskal Unibertsitatea helburu duen bide luzean era eta talde askotan egon da presente. Hona lagin txiki bat:

•1932an, 23 urte dituela, «Centro de Estudios Científicos» sortu du, Eusko Ikaskuntzaren babespean.

•1939an, Francoren-pean jada, «Centro de Estudios Superiores» sortu du. Donostian hau ere.

•1956an, ESTE (Escuela Superior de Técnica Empresarial), gero EUTG Unibertsitate bilakatuko denaren sorreran parte hartu du.

•1964tik aurrera, desegin arte, «Junta Promotora de la Universidad de Guipúzcoa»ko kide da. Hemendik sortuko da 1968an Donostiako Zuzenbide Fakultatea.

•1967an, «Escuela de Petroquímica» (Kimika Fakultatea 1973an) Donostian lortzeko Batzordeburua da.

•1971n, «Baionako Astea» delakoan Udako Unibertsitea muntatzea berak proposatu du, euskara hutsez noski, Kataluniako «Universitat d'Estiú»ren moldera.

Karlos Santamariaren buruan gauza bat da Euskal Herriko Unibertsitatea eta beste bat Euskal Unibertsitatea. Azken hau ez da utopia, egingarria baizik. Halaxe aldarrikatu zuen «Doctor Honoris Causa» izendatu zuenean Euskal Herriko Unibertsitateak.

Karlos Santamariak landu duen beste bide bat, euskalgintza da, euskal kultura modernotzea, gaien eta hizkuntzaren aldetik eguneratzea.

Euskaldunberria da Karlos Santamaria, gaztetan hasia euskara ikasten Toribio Altzaga eta Maria Dolores Agirrerekin. Baina euskal kulturan sartu, berandu sartu zen, 50 urtetik gora zeuzkalarik. Sartzen denean burubelarri sartzen da, hori bai. Hala idazten eta kazeta-arduretan nola euskararen normalkuntzan.

Zeruko Argiaren bidetik abiatu zen, 1963 aldera, aldizkari honen berrabiapuntuan hain juxtu. Jakin aldizkarian erredaktoreburu gertatu zen 1967an. Elkarrekin geunden hor, eta luzaz mintza naiteke haren eraginaz eta Rikardo Arregirengan zuen itzalaz. 1968tik aurrera euskararen normalkuntza-lanetan ere badabil, euskara batu eta modernotu egin behar zela eta. Hiru hiztegi mota proposatzen ditu berak: «gaurko hiztegia», hiztegi modernoa alegia; «batasun hiztegia», hautatu beharreko hitzak eta berauen formak, alegia; eta «euskal hiztegi analogikoa» euskal idazle, hizlari eta pentsalarientzat tresna egokia.

Ez nuke ahaztu nahi, azkenik, *Euskaldunon Egunkaria* abiatzeko unean, «Egunkaria Sortzen» talde eragileko lehen izena berea zela. Eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuari, Joseba Arregiri, egin genion lehen bisitan han zegoela bera Joxemi Zumalaberi laguntzen.

1909ko neguan jaio zen gizon honek, nahiz eta erretiratua egon gaur, bizi-bizirik dirau bere idatzietan, bere mezuan eta zertan esanik ez bere ereduan.

Joan Mari Torrealdai

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

La filosofía política de Jacques Maritain, Círculo de San Ignacio, Donostia, 1950.
Jacques Maritain y la polémica del bien común, La Editorial Católica, Madrid, 1955.
La iglesia hace política, Euramérica, Madrid, 1974.
La amenaza de la guerra nuclear, Idatz, Donostia, 1985.

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Urte luzetan kolaboratu izan du aldizkari zein egunkarietan.

Martin Ugalde

ERBESTEAREN LEKUKO

Gazteleraz hasi zen idazten, baina gero, etxera itzuli zenean, heldu zion berriro euskara herdoilduari, zilarraren distira ateraz. Idazle eta kazetari da funtsean.

Martin Ugalde 1921eko azaroaren 11n jaio zen Andoainen. Hasieran mojekin hasi zen eskolan, eta segituan herriko eskolara joan zen. Handik La Sallekoen ikastetxera aldatu zen, bere jakinmina asetzeko asmoz:

—Nik uste dut funtsean La Salleko eskolan ikasi ditudala nere lau izkinako neurri bereziak, gizona gizon egiten duten neurriak hor ikasi nituen –aitortzen du

Martin Ugaldek lasalletarrekiko esker onez. Gainera geroago, gerra amaitzean erbestetik etortzean ere lasalletarrek lagunduko zioten etxerako bidean.

Matematikako ateak parez pare ireki zizkioten ikastetxe horretan. Hantxe sortu zitzaion literaturako gogoa ere. Batzokiko giroan parte hartu zuen dantza talde eta antzerkietan.

Harotza zuen aita eta errepublika garaian udaletxean zinegotzi ere izan zen. Gerrak markatu zuen, ordea, familiaren bizitza. Aita azkeneraino egon zen gerran, Katalunia erori arte, eta orduan Venezuelara alde egin behar izan zuen.

Gerra piztu zenean, beraz, Bilbora alde egin behar izan zuten lehenbizi, Hernanin eta Donostian eta Mundakan barna. Bilbon Belandia akademiara joan zen ikasketak ez galtzearren, hiria erori zen arte. Handik, azkenik Frantziara alde egin zuen.

Anaia, Joseba, gerra zela-eta, erbestera eraman zuten, eta nora eramango eta Errusiara. Martinek, bere aldetik, ez zuen hara joateko modurik izan. Eta hamar urtez, bakoitza bere aldetik ibili zen familia osoa: Aita Venezuelan, ama Andoainen, Joseba Errusian, eta Martin Donibane Lohizunen. Handik berriro etxera itzuli zenean, ama etxean, Martin Afrikan, ama Amerikan eta Joseba oraindik Errusian aurkitzen ziren.

Andoainera 1940ean iritsi bueltan eta beren etxea kanpokoen eskuetan ikusi zuen. Lanik ez zuen, ezta bere aitaren lantegian ere, beste baten eskuetan zegoelako hura ere. Azkenean Laborden sartu zen. 1942tik 1945era bitartean, berriz, Afrikan, Marokon egon behar izan zuen soldaduska egiten. Hangoak pasatu eta berriro Labordetarren fabrikara, baina oraingoan bulegora joan zen Martin Ugalde.

1947an Venezuelan elkartu zen behingoan familia osoa.

Euskal Etxean hasi zen lanean, eta Euzko-Gaztedi mixtoa sortu ere egin zuen, mutil eta neskak, denak erakunde bakar batean elkartuz. EAJko buru izan zen Venezuelan, orobat Euskal Etxeko buru, eta Euzko Gaztedi eta *Euzkadi* aldizkarietan eta Elite astekarian hasi zen idazten –azken honetako erredakzioburu izango zen geroxeago–. General Motors enpresan lanean hasi zelarik, egunkarietan idazten ere hasi zen eta Elite egunkariko erredakzio-buru bilakatu zen.

Venezuelan idatzi zituen gazteleraz *Imágenes de la Semana Santa en Venezuela, Un real de sueño sobre el andamio* (Nacionaleko lehen saria), *La semilla vieja* (El

Universal saria), *Cuando los peces mueren de sed* (El Nacionaleko erreportai saria), *Las manos grandes de la niebla* (Madrilgo Sésamo saria), *Unamuno y el vascuence.* Eta euskaraz: *Iltzailleak, Ama gaxo dago* (antzerkia), *Gurpegin aspaldi gertatua* (antzerkia), *Umeentzako kontuak.*

—Idaztea izan da beti nere gauza –esango dizu komentziturik Martin Ugaldek.

"Creole Petroleum Corporation" konpainiak zeuzkan *Nosotros* eta *Farol* aldizkariak zuzendu zituen. Azkenerako, berriz, konpainiako publikazio guztien buru izan zen. Chicagoko Northwestern unibertsitatera kazetaritza egitera joateko aukera eman zion konpainiak, eta bi urteren buruan master titulua eskuratu zuen han.

Euskal Herrira etorri baino bi urte lehenago bidali zuen Martin Ugaldek familia aurretik. Eta bera azkenean 1969an etorri zen, eta Hondarribian jarri zen bizitzen. Alderdi, EAJko boletina egiten ari zela, 1971ean klandestinitateko Jaurlaritzako kontseilari izendatu zuten. 1973an preso hartu zuen poliziak. Baina 24 orduren buruan erbesterako bidean jarri zuen berriro. 1976an iritsi zen azkenik etxera betiko.

Euskal Herrira itzuliz geroztik idatzi ditu gazteleraz *Hablando con los vascos, Síntesis de la Historia del País Vasco, Tres relatos vascos, Hablando con Chillida, escultor vasco, Las brujas de Sorjin, El exilio en la literatura vasca: problemas y consecuencias, Bajo estos techos, El problema vasco y sus profundas raíces culturales y políticas, Historia de Euskadi, Biografías de tres figuras nacionalistas vascas: Sabino de Arana Goiri, José Antonio de Aguirre y Jesús María de Leizaola, Nueva Síntesis de Historia del País Vasco.* Orobat *Libro Blanco del Euskara* eta *Conflicto lingüístico en Euskadi* liburuetan parte hartu zuen. *Deia* egunkariko euskarazko atalaren arduradun izan zen. Eta euskaraz berriz idatzi ditu *Itsasoa ur-bazter luzea* (Dionisio Amundarainek euskaratua), *Herri baten deihadarra, Mantal Urdina* (Irun eta Ignacio Aldecoa sariak), *Eloy Erentxun* (euskaraz eta gazteleraz), *Jose Ariztimuño* eta *Biografia, Batasuna eta zatiketen artean; Lezo, Urreiztieta, biografia, Itzulera baten historia* (Eusko Jaurlaritzako nobela saria).

Eusko Jaurlaritzan euskararen sustapenerako arduradun izendatua izan zen Karlos Garaikoetxearen gobernuan. Gobernuko lanak utzita, bere lumari heldu dio Martin Ugaldek –*Egunkaria* sortu zutenetakoa dela ahantzi gabe– eta artikuluak eta liburuak ugari argitaratzen ditu hainbat arlo ukituz, inoiz "Erritar" izengoitia erabiliz.

—Idazlea naiz ni eta idatzi gabe ezin naiz bizi. Behar dut arnas bat –dio Martin Ugaldek bere bizitzaz pentsatzen ari delarik.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Imágenes de la Semana Santa en Venezuela, Revista El Farol, Venezuela, 1956. Erreportaiak.
Un real de sueño sobre un andamio, Cromotip, 1957. Ipuinak.
La semilla vieja, Cromotip, 1958. Ipuinak.
Iltzalleak, Cromotip, 1961. Ipuinak.
Ama gaxo dago, Cromotip, 1964. Antzerkia.
Cuando los peces mueren de sed, Universidad de los Andes, Venezuela, 1963. Erreportaiak.
Las manos grandes de la niebla, Cromotip, 1964. Ipuinak.
Unamuno y el vascuence, Ekin, Buenos Aires, 1966.
Umeentzako kontuak, Itxaropena, 1966. Ipuinak.
Itsasoa ur-bazter luzea da, Erein, 1973. Narrazioa.
Hablando con los vascos, Ariel, 1974. Elkarrizketak.
Tres relatos Vascos, Txertoa, 1974. Ipuinak.
Síntesis de la Historia del País Vasco, Seminario y Ediciones, 1974.
Hablando con Chillida, Txertoa, 1975. Elkarrizketak.
Las brujas de Sorjin, Axular, 1975. Eleberria.
Exilio español en 1939, Taurus, 1976. Hist./Lit.
Herri baten deihadarra, Ediciones Vascas, 1978. Historia.
Hizkuntz borroka Euskal Herrian, Euskaltzaindia, 1979 Hizkuntza.
Bajo estos techos, Cromotip, 1979. Historia.
Cuentos de inmigrantes, Ediciones Vascas, 1979. Ipuinak.
El problema vasco y sus profundas raíces culturales y políticas, C.A.G., 1980. Saiakera.
Historia de Euskadi, Planeta, 1981, 1983. Historia.
Nueva Síntesis de la Historia del País Vasco, Elkar, 1983. Historia.
Biografías de tres figuras nacionalistas vascas: Sabino de Arana Goiri, José Antonio de Aguirre y Jesús María de Leizaola, Sendoa, 1984. Biografia.
Mantal urdina, Erein, 1984. Ipuinak.
Hiltzaileak, 2.argitalp. Erein, 1985 Ipuinak.
Eloy Erentxun, CAM, 1987. Elkarrizketa.
José Ariztimuño, «Aitzol», Erein, 1988.
Batasuna eta Zatiketen artean, Elkar, 1990. Kazetaritza.
Lezo Urreiztieta, Elkar, 1990. Biografia.
Bihotza golkoan, Erein, 1990. Ipuinak.
Itzulera baten historia, Elkar, 1990. Eleberria.
Mientras tanto fue creciendo la ciudad, Gobierno Vasco, 1992. Ipuinak.
De la Nueva tierra y los inmigrantes, Anthropos, 1992. Ipuinak.
De la inmensa soledad del Hombre, Anthropos, 1992.
Manuel de Irujo, Txertoa, 1992. Biografia.
Pedrotxo, Elkar, 1994. Eleberria.

Luis Villasante Kortabitarte

AXULARREN ITZALA

Gernika ondoan dagoen Errenterian –udalerriz Axangizkoa zen auzo hau– jaioa da Luis Villasante Korbabitarte, 1920ko Martxoaren 22an.

—Ni lehenengo erlijioso naiz –dio berak, zer den galdetzen zaionean.

Euskaltzain izan zedin eskaini ziotenean ere, baimena eskatu zien nagusiei, eta haien baimenez sartu zen Euskaltzaindian, han lan egiteko asmotan inolaz.

—Gernikarrak ez ginelako –kontatzen du–, ezin genuen joan Gernikako herriko eskolara, ez gintuzten hartzen han.

Gernikan egin zituen, edozein modutan, lehen ikasketak mojekin eta ondoren agustinoetan eta azkenik maixu partikular batekin. Baina berehala jo zuen Arantzazura, frantziskotar izateko asmoz. Bere etxea erretzen ikusi zuen Gernika bonbaz jo zutenean.

Arantzazun teologia ikasten ari zela, lagun euskaltzale sutsuak izan zituen ondoan, eta horien artean aipatzekoak dira Salbatore Mitxelena, Karmelo Iturria eta Eujenio Agirretxe, euskal idazleak hiruak ere.

Apez ikasketak amaiturik, Santanderko Comillasera bidali zuten nagusiek hiru urtez ikastera, irakasle izateko presta zedin.

Garai horretan idatzi zuen *La Sierva de Dios M. Angeles, Concepcionista franciscana (1873-1921) Estudio místico de su vida*, doktoradutzako bere tesia. Arantzazura itzulirik, apologetika, aszetika eta mistika eta euskara irakatsi izan ditu urtetan eta urtetan.

Aranzazu aldizkarian hutsik egin gabe idatzi ditu urte askotan artikuluak euskaraz.

Euskararen arloan, *Goi-Argi, Ars-ko Erretore Santuaren Erakusaldiak* (1955) izan zen argitaratu zuen lehen liburua, eta ondoren *Euskal Gramatika llabur eta idazleen pusketa autatuak* (1956), *Nere izena zan Plorentxi* (1961, M. Angeles Sorazuren bizitza).

1961ean argitara eman zuen *Historia de la Literatura Vasca*, hainbat kritika, aldeko bezainbat kontrako, jaso zituena. 1962an *Kristau Fedearen Sustraiak* sailari eman zion hasiera, *I. Jainkoa, II. Jesukristo eta III. Eliza* argitara eman dituelarik. Graziano Anduaga, Gesaltzako aitonaren obra ere jaso du Luis Villasantek bi liburutan: *Aitonaren uzta* eta *Egunsentiko txoria eta bertso bilduma* liburuetan, alegia. Orobat, gipuzkeraz jarri ditu bi idazle lapurtarren obra bana: *Kataliñen Gogoetak* (P. Arradoi) eta *Senperen gertatua* (P. Larzabal).

Gogoan hartzekoak dira Axularri buruz egin dituen lanak: *Gero* (gaztelerazko itzulpenaz hornitua), *Axularren Hiztegia* eta *Axular, mendea, gizona, liburua.*

Gramatika arloan idatzi dituen lanak ere aipatu beharrekoak dira: *Hacia la lengua literaria común, La declinación del vasco literario común, Palabras vascas compuestas y derivadas, Sintaxis de la oración compuesta, Estudios de Sintaxis vasca.*

Itzulpen bat ere egin du Luis Villasantek: *Anai Frantzisko - Arreba Klara. Idazkiak* (Jose Luis Zurutuzak lagunduta).

Euskaltzainburu izan da urte askotan. Eta euskara batuaren inguruan sortu ziren gorabeherek nahiko kezka sor ziezaioketen, baina irmotasunez eraman du aurrera bere egitekoa, euskara salbatuko bada batasuna eginik salbatuko dela ikusiz.

—Egun oso txarrak igaro genituen –kontatzen du Luis Villasantek euskara batuaren auzia Euskaltzaindian ere sutu zen garaiez mintzo delarik–. Batzuk ez ziren etortzen bileretara. Baina guk segi egin genuen, ez etsi... Nik uste dut batzuk boikota egiten zutela... Gaur datorren jende berriak ez du diskutitu ere egiten hori –amaituko dizu, auzia nola amaitu zen.

Arantzazu, Gernika, Egan, Euzko-Gogoa, Euskera, Cantabria Franciscana, Gure Herria, BAP, Anaitasuna e.a. aldizkarietan argitaratu ditu bere artikuluak Luis Villasantek.

Lehen maitasunak eraginda berriro bueltatu da Luis Villasante M. Angeles Sorazurengana, eta haren idazkiak ikertzen dihardu berriro.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Nere izena zan Plorentzi, 1960.
Historia de la Literatura Vasca, 1961. Saiakera.
Graziano Anduaga, Gesaltzako aitonaren bertso eta bestelako lanak: Aitonaren uzta, Kuliska Sorta, 1961.
Egunsentiko txoria eta beste bertso asko, Auspoa 31, 1961.
Bertso-Bilduma, Auspoa, 52-53, 1961.
Kristau Fedearen Sustraiak: 1. Jainkoa, Arantzazu, Jakin, 1962 • *2. Jesukristo*, Donostiako Aurrezki Kutxa, 1968 • *Eliza, 3*, 1984.
Axular: Mendea, Gizona, Liburua, 1972. Saiakera.
Voces Bascongadas Diferenciales, (Añibarro), Bilbao, 1963.
Grámatica Bascongada para el uso y alivio de Párrocos y Predicadores Bizcaynos, Guipuzcoanos y Navarros, 1969.

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas conlindantes, (Cándido Izagirre), 1971.
Asisko Loria, (Krispin Beobide), Auspoa, 1968.
Axular-en Hiztegia, 1973.
Hacia la lengua literaria común, 1970.
La declinación del vasco literario común, 1972.
Palabras vascas compuestas y derivadas, 1974.
Estudios de Sintaxis vasca, 1978.
Sintaxis de la oración simple, 1980.
Kristau Fedea, 1980.
La H en la ortografía vasca, 1980.
La oración causal en vasco, 1986.
Euskararen Auziaz, 1988.
Angeles Sorazu. Bizia eta Mezua, Erein, 1990.

Piarres Xarriton



AMETSAK BEHAR DIRA!

1921eko Urriaren 19an jaio zen Piarres Xarriton idazle eta irakasle hazpandarra. Lehen ikasketak parropiako eskolan egin zituen. Apezgaitegira joan zen ondoren. Halere, lehen bi urteak Hazparne bere jaioterriko barnetegian igaro zituen:

—Behar baitzen haien teoriaren arabera diziplina eta larderia handia txiki kolejioetan, gauzak untsa joaiteko; orduan nahi ala ez behar ziren gaztigatu batzu; gutxi

baiginen, maiz berak ziren gaztigatuak, eta haietarik nintzen... Oso oroitzapen txarra izan dut nik... beharbada nire bizian pasaturiko urterik ilunenak hamar hamalau urte arteko horiek –dio Piarres Xarritonek.

Euskararen sua piztua zekarren etxetik –etxean zeukan osaba kalonjearen liburutegia–, baina Hazparneko barnetegian ere izan zuen aukerarik Euskal Herriarekiko maitasuna suspertzeko.

Gero Uztaritzen... nahiko hurbiletik ezagutuko zuen han Espainiako Anaiarteko Gerra, baina batez ere Piarres Lafitte eta Etienne Salaberry ezagutuko zituen han.

—Xarriton "adimendua" zela zioten eta ni "bihotza" –komentatuko du geroago Iratzederrek garai haiek gogoan, biak baitziren abertzale bakarrak Ustaritzeko apezgaitegi hartan, gainerakoek Frankoren aldeko ziren bitartean.

Azkenik Baionara joan zen. Bi urtez irakasle izan zen gerra garaian Miarritzen –euskara ere irakatsi zuen– eta Hazparnen. Baionan ikasten ari zelarik *Aintzina* aldizkaria atera zuen –Chavier Gasteiz ezizena erabiliz– Iratzeder eta Marc Legassekin (Etxegarai kardinala ere tarteko zen eta hau izan zen zabalkundea egin zuena). Orobat *Eskualdunak*, bere lehen liburua argitaratu zuen (1943). Baina apeztu gabe zegoelarik Erromara bidali zuten 1946ean teologia amaitzera. Garaitsu horretan idatzi zuen *Petit Histoire religieuse du Pays Basque* (Baiona, 1946).

Erroman zelarik euskaldunak elkartu ohi ziren, eta horien artean aipatzekoak Etxegarai eta Sukia (biak gerora kardinal izanak), Abaitua, Goenaga, Leturia, e.a. 1947ko Uztailaren 13an apeztu zen Hazparnen. Erroman, ordea, istilutxoren bat izaki, ezin amaitu ahal izan zuen Teologiako doktoradutza. Beraz, Erroman egin ordez Tolosara joan behar zuela agindu zioten nagusiek, baina bien bitartean herriz herri predikuan ibili zen Hazparneko misiolari etxetik. Eta ondoren Hazparneko barnetegian haurren zaintzaile jarri zuten.

Azkenik, edozein modutan, filosofia egiten hasi zen Bordelen. Hirugarren urtea egiten ari zela, Maulera igorri zuten filosofia irakastera –gaztelera eta euskara ere irakasten zituen– eta orobat pastoralgintzara.

Maulekoak utzirik, Parisera joan zen Sorbonan ikasketak bukatzera. Han ezagutu zituen Hegoaldeko eta Iparraldeko euskaldun asko eta asko, eta Jose Antonio

Agirreren laguntzaz topatu zuen lehen bilgune bat Parisko euskaldun guztiak elkar zitezen. Geroago antolatuko zuen Euskal Etxea.

Ikasketak bukatu eta Baionara itzuli zen, Baserri Gazteriaren arduradun bost urtez. Hazparneko ikastetxea eraberritzeko agindua eman zioten orduan. Txillardegi bertan irakasle zelarik, handik bota zezaten agindu zioten, baina hori ez onartuz bere dimisioa aurkeztu zuen. Gainera, beste bi irakasle preso hartu zituen goardia zibilak Elizondon, eta azkenean bota egin zuen apezpikuak kargutik.

Parisera joan zen berriro, eta bi urte egin zituen han, kapelau zen bitartean, ikasketak eginez eta tesia prestatuz: *Gizonaren eskubide kulturalen oinarria*, alegia. Ondoren, berriro Baionara itzuli zen Saint-Amand parropiako erretore. Euskal Herriko giro politikoa nahiko nahasia zen garai horretan, eta Piarres Xarriton zurrunbilo horretan nahasturik zegoen. Kultur asteak ere antolatu zituen garai honetan.

Herria astekarian "Federalista" ezizenez sinatu zituen, euskal itxaropenen helburu Europa ikusten zuelako.

Baionatik berriro Parisera itzuli zen, eta arreba hil zelarik, haren dendan lan egin zuen. Handik, berriz, Ameriketara jo zuen, Kanadara, eta han argitaratu ere egin zuen bere tesia.

Larzabal, Saint-Pierre, Jean Etxepareren obren argitalpenak egin ditu, beste hainbat eta hainbat lanen artean. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izan da, jubilatu artean, filosofia euskaraz irakatsiz.

Azken aldian politikan ere sarturik dabil euskaltzaina.

—Ele onak dituzte frantsesek –dio Piarres Xarritonek, Frantziako agintariek euskarari eman diezaioketen laguntza aipatzen zaionean, ikusten baitu euskarak behera egiten duela–. Ametsak behar dira! –dio ordea azkenean, etorkizun hobea izango den esperantzaz.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Euskaldunak Aintzina, 1943. Historia.
Petite Histoire Religieuse du Pays Basque, Euskal Herria, 1946. Historia.
Le droit des peuples à leur identité, Fides, 1979. Teologia.
Pierre Broussain sa contribution aux études basques, CNRS, 1985.
R. M. Azkue eta P. Broussain, Euskaltzaindia, 1986.

Apailatu ditu:

J. Etchepareren *Mendekoste gereziak*, Goiztiri, 1982.
J. Etchepare mirikuaren idazlanak (5 tomo), Elkar.
P. Larzabalen idazlanak, Elkar, 1991.
Jose Mendiague. Haren bizia eta kantuak, Etor, 1992.

Anbrosio Zatarain Etxebeste



GERRAURREKO INGENIARIA

Min hartuta aurkitu nuen etxean, baina ez etsita, ez lur jota, bere gauzen artean, bere betiko gaien erdian. Jainkoarekin hitz egiteko ere euskara erabili izan du, meza laguntzeko ikasitako latinaz aparte –bestela ez baitu izan hain gogoko latina.

Anbrosio Zatarain Etxebeste Donostian jaioa da, hondartzaren aurre-aurrean, 1912ko Irailaren 27an. Bera jaio eta bi egunetara ama hil zitzaion tamalez. Aita

gogortxoa izan zuen, baina euskara hark itsatsi zion, hari beti euskaraz egin baitzion, hark gaztelerarekin tentatzen zuenetan ere.

Hiru urte zituela Usurbila aldatu zen bizitzera familiarekin, eta han -ondo gogoan dauka hori oraindik- errosarioa esaten zuen aitak bizkarrean hartuta, batera eta bestera pasiatzen zuten bitartean.

Lehen ikasketak Donostian egin zituen, partikular, eta ikasketa horien artean musika ere ikasi zuen On Jose Olaizolarekin. Aleman pixka bat ere ikasi zuen alsaziar bitxi batekin. Batxilerra egiten ari zela, legeak aldatu, eta ingenieritza nahiko gazterik hasteko aukera izan zuen. Eta hala hasi eta bukatu zuen karrera Bilbon.

Ikasten ari zela hasi zen idazten Bilboko Euzkadin eta Donostiako Argian, baina ezizenak erabiliz bere aitak igar ez ziezaion. "Zatarra", "Basati" eta "I'ko bakartiya" izan dira Anbrosio Zatarainen ezizenak.

Bilbon zegoela, berriz, anaiarteko gerra piztu zen. Zorionez, ordea, muga pasatzeko aukera izan zuen: fabrika bat ikustera joan, eta ondoren egin zuten parrandak eraginda-edo odola bota zuen txistuan... eta gaitz txarren bat izango zuelakoan Eusko Jaurlaritzatik pasaportea eskuratu eta Paben jarri zen bizitzen familia osoa. Han Frantziako batxillerra atera zuen. Horri eta beste zenbait gorabeherari esker, sei hizkuntza erabiltzeko gai da Anbrosio Zatarain.

Atzerrian ezagutu zituen Orixe, Sebero Altube, Barriolatarrak, e.a. Pabeko bere etxeko bixitari izanak.

Gerra bati ihes egin, baina bigarren bat etorri: Bigarren Mundu Gerrateak harrapatu zuen, eta hark ere zenbait neke pairarazi zizkien berari eta bere etxekoei.

1948an itzuli zen etxera eta *Gure kantadoinuen ttunttunak* artikulua argitaratu zuen Eusko Jakintzan. Baina gobernuak zituzten ondasunak kendu zizkienez, lanean hasi behar izan zuen eta ondoren irakasten Perito eskolan: matematika eta egituren teoria e.a. Bi urte geroago ezkondu zen: zazpi seme-alaba izan ditu.

1968an *Notas al Cancionero* argitaratu zuen eta orobat Azkueren kantutegia ere argitaratu zuen oharrez hornitua. Euskaltzaindiko Urgazle ere bai baita.

Matematikako gaiak ere argitaratu zituen *Elhuyar*ren. Baina *Euzkadi*, *Euzko-*

Deya, *Zeruko Argia*, *Euzko-Gogoa*, *Olerti* eta *Euskera* aldizkarietan argitaratu ditu hainbat artikulu euskararen edo euskal historiaren gainean.

Alemanetik euskaratua dauka *Dudden* deituriko liburua, 25.000 gauzaren berri, beren izen eta guzti, jasotzen duena; oraindik argitaratu gabe dauka, ordea.

Alostorrea ere prestatua zeukan, hitz neurtuz osaturiko drama, bere kanta eta guzti, baina kasik galdutzat ematen du berak ere.

Euskara garbi eta txukuna izan du bere kezka, garbizalekeriarik gabea inolaz. Euskarazaintzako kide da eta "h" letrak sortzen dituen arazoen kontra dago erabat, letra horren erabilera tradizioan finkatu gabe dagoelako, eta hainbat gauzatarako erabili delako, bere ikerketen bidez argitu nahi izan duenez.

Gaur oraindik lanean ari da, bere ohizko zorroztasuna galdu gabe inolaz:

—Ahal denean, ahal dena –esan zidan despedidarako, bertso bat kantatu aurretik.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Azkue'ren *Cancionero Vasco*, Euskaltzaindia

Prentsa idatzian kolaborazioak:

Euzkadi, Euzko Deya, El Diario Vasco, Jakintza, Cuadernos para el Diálogo, Elhuyar.

Augustin Zubikarai Bedialauneta

HAMAIKA EZIZENEKO GIZONA

Ondarroan jaio zen 1914ko azaroaren 3an Augustin Zubikarai Bedialauneta idazle oparoa eta sarri saritua, bederatzi senidetan hirugarrena.

Lau urte zituela hasi zen ikasten mojetan –euskaraz gainera–. Herri-eskolan sei hilabete eskas egin eta hamar urte zituela Saturrarango prezeptoriara joan zen. Osasun nahiko eskasekoa zen Augustin Zubikarai, eta nekeak eman zizkion horrek ikasketetan, etxera sarri joan behar baitzuen; halere han egin zituen batxileratoko ikasketak. Filosofiako lehen ikastaroa ere apezgaitegian egin zuen.

"Jaungoiko-zale" Zornotzan apezek ateratzen zuten aldizkarian hasi zen idazten, baina haren ordez "Ekin" izeneko astekaria sortzean aldizkari berrian jarraitu zuen. Behin etxean bizitzen jarri zenetik, *Euzkadi*n idazten zuen euskaraz (Arteta) eta gazteleraz (Kutuntxo de Artibai). Lauaxeta zen orduan –Orixeren ondoren– Euzkadiko zuzendari, eta hara eraman nahi izan zuen Zubikarai, baina gerra etorri zen eta asmoak ustel atera ziren. Euzkadin argitaratuko ditu *Aberriagaz bizi* (1934, argitaratu zuen lehen antzerkia), *Illobearen indarra* (1935), *Itxas lapurrak* (1936) serial bezala. *Itxas-ertzeko itsumutilla* ere orduan idatzi eta sariketa batera bidali zuen; harrezkero ordea galduta dago.

Gerra etorri zen, eta oraindik istiluak Ondarroara iritsi gabe zeudenean, Donibane Lohizunera alde egin zuen Augustin Zubikaraik, beste zenbaitekin batera bapore batean. Han pixka batean zer egin erabaki ezinik egon ondoren, Bilbora itzuli zen. Zuzenean joan zen Hotel Carltonera, Eusko Jaurlaritza zeukan egoitzera, soldadu izateko asmotan. Baina Lauaxetak bere ordez jarri zuen Euzkadin egunkariko zuzendariari laguntzen. "Gudari" aldizkarian ere idatzi zuen gazteleraz.

Abeletxek 1936ko Eguberrietan erabakia aurkezten du: Urteberritarako *Eguna* egunkaria atera behar dela. Abeletxe zen zuzendari, Zubikarai erredaktore-buru, Erkiaga, Jose Mari Arizmendiarrieta, eta Mendizabal erredaktoreak. Eta agindu zieten bezala, 1937ko Urteberri egunez atera zuten *Eguna*, eta Bilbo erori baino bost egun lehenago arte atera ere. Bilboko *Hoja del Lunes*en ere idatzi zuen gazteleraz Augustin Zubikaraik.

Bilbo erori baino hiru egun lehenago, Enkarterri aldera joan zen ihesi jadanik. Eta Santoña, Mieres eta Escudon zehar iritsi zen Laredora bere lagunekin. Eta han erori zen italiarren eskuetan. Handik "trabajadoretara", Aranda de Duero, Miranda de Ebro, Oteiza, Mirabueno, e.a. pasatu zituen. Azkenik Donostiara ekarri zuten arte. Orduan Hendaian trukatu zituzten bederatzi kazetari euskaldun Zaragozako bederatziren truke, eta haien artean zegoen gure idazlea.

Ziburun jarri ziren bizitzen, baina ez luzarorako. Beste zenbait lekutan ibili ondoren, Bigarren Mundu Gerratea piztu zenean, beren buruak eskaini zituzten lanerako eta Lanemezan-era joan ziren. Eta handik, berriz, Tarbesera. Eta handik azkenean etxerako buelta.

Etxeratzeko baimena lortu zuelarik, Kataluniatik sartu zen. Baina sartu bezala, Figueresko penalera bidali zuten, eta handik Madrilera eta ondoren Gibraltar aldera, San Roquera, zigor batailoira.

Azkenean, edozein modutan, 1940ean askatasun osoa lortu eta etxeratu zen. Eta Mutrikun kontserba fabrika batean kontaduria eramaten hasi eta berrogei urtez bertan jarraitu du.

Aberriagaz bizi (1934, lehen antzerkia), *Illobearen indarra* (1935), *Itxas lapurrak* (1936), *Umetako kezkak, Itxasertzeko itsu-mutilla.* Miarritzeko Lore Jokoetara antzerki bat, *Itxasora* bidali zuen 1941ean eta saria irabazi ere bai. *Egan* aldizkariak 1956ean antzerki sariketa berri bat antolatu zuen eta *Seaska inguruan* antzerkiaz bigarren saria eskuratu zuen Augustinek. Gero etorriko ziren hainbat eta hainbat obra: *Jaunaren bidetan* (Jose Mari Altunak musika jarria), *Kresaletan* (Gregorio Solabarrietak musika jarria). *Iru alaba* (1963ko Toribio Alzaga saria). *Mendu zaarrak* (1969, Gipuzkoa saria), e.a.

Nobela ugari ditu eginak eta sarituak: *Pinuetako madalenak* (1965ko Gipuzko saria), *Bizi garratza* (1967ko Gipuzko saria), *Antxon Guzurretxe* (1979, Txomin Agirre saria), *Bale denborak* (1978, Kritika saria), *Lainoak Mundakan* (1979, Mundakako saria), *Ira usaina* (1980), *Zaldupeko Txikiena, Indar Barriak,* e.a.

Poesia ere landu du inoiz: *Urbasatik kantuz* (Sangotzako 1967ko saria) eta *Naparroako bideetan* (Sangotzako 1968an saria). *Koroiko pitxiak* (Zornotza saria). *Olerti* aldizkarian argitaratu ditu batzu-batzuk.

Historia gogoko izan du, eta hala idatzi ditu *Motrico* (gazteleraz), *Ondarroa* (euskaraz eta gazteleraz), *Luma izkillutzat, Ondarroako abizenak, Azkueri jarraitzen.*

Aldizkari eta egunkari kasik guztietan eskuhartu du Augustin Zubikaraik: Amesti, Ondarzubi, Ondarruko Zubikarai, Zubegi, Ituarte, Arteta, Gurutz, Likona, Kutuntxu de Artibai, Zutarra, Ibaiondo, Zubiberri e.a. ezizenak dira horren lekuko.

Ondarruko Kultur Etxeko zuzendari izan da luzaz. Euskaltzain urgazle da eta orobat ohorezko euskaltzain eta baita Euskarazaintzako partaide ere. Eta gaur oraindik, atergabe dihardu lanean.

P. Zabaleta

ARGITARATUTAKO LIBURUAK:

Bizi garratza. Mendu zaharra, 1970. Antzerkia.
Kardala, Ekin, 1976.
Aingira kumak, 1976. Antzerkia.
Boga ta zixe, Autoedizioa, 1976.
Bale denborak, Leopoldo Zugaza, 1978. Narrazioa.
Esan eta esango, Ediciones Vascas, 1979. Narrazioa.
Anton Guzurretxe, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, 1979. Narrazioa.
Lainoak Mundaka' n, GEU, 1980.
Mun-daka, GEU 1981. Narrazioa.
Ira usaina, GEU 1981. Narrazioa.
Bizitzako urratsak, Geu 1981. Narrrazio.
Gure inguruak, 1982. Autoedizioa.
Makillen egunak. Guda baten kerizpe eta autsetan, 1983. Narrazioa.
Bizkaiko bidetan, 1984.
Itsastarrak,1985. Narrazioa.
Ondarru, kantu, otoi, orru, 1984.
Ondarroa baserri giroan, 1985.
Peru eta Mari, gureak, Gaubeka, 1986. Narrazioa.
Lugo-ko Ipuiñak, 1986. Kontakizunak.
Garratz eta gordin, 1986. Narrazioa.
Itsastarrak, Gaubeka, 1986.
Barre eta irri, 1988. Kontakizunak (elkarlanean).
Balentin Berrio-Otxoa; bizitza, eskutitzak, gorespenak, 1988. Biografia.
Berriatua, 1986, (elkarlanean).
Ipazter, 1987.
Treiñeru estropadak, 1987.
Amoroto eta Gizaburuaga, 1988.
Mendeja, 1988, (elkarlanean).
Etxebarria, 1989.
Ea, Natxitua, Bedarona, 1989.
Itxas aize, 1989.
Aulesti, 1990.
Ondarroa ikusgarri, 1990.
Zaldupeko txikiena, 1991. Narrazioa.
Markina Xemein I, 1991.
Markina Xemein II, 1991.
Munitibar, 1992.
Zeregiñak (agenda), 1992.
Zeregiñak, (agenda), 1993.

Adiskide maitea:
Bi lerro besterik ez...

SANTUARIO DE ARANZAZU

Teléfono: 7-81-72

O Ñ A T E (Guipúzcoa)

1966,urtarrillak 31

Basterretxea jaun adiskideari

Itz eman nizun bezela,asi naiz "Revista Internacional de Estudios Vascos"-etako aurkibideak iraultzen,eta auxe da aurkitu detana:

Zabala-Arana'tar J.,"Euskerazko zenbakera",en "Revista Internacional de Estudios Vascos",tomo XIX,pág.584 y siguientes.

Besterik nik ez det ezagutzen gauza ortaz.Aita Celestino Solagurenek esan dit (gernikarra da berau ere),bera ume zanean (Errepublikako denporan) euskal ikastola batera joaten zala eta an kontatzen beste modu batera erakusten zietela,ez erriak egiten duan modura. Eta liburuak ere ba zituztela,baiña bera orain ez dala oroitzen eta orduko librurik ez daukala.Nik uste det Aita Zabala-Arana orrenak izango zirala liburuok. Nere Historia de la Literatura Vasca-n ba dago Aita orren berri zerbait.Bruño Editorialak ere argitaratu zituen zenbait liburu irakaskintzarako.Bearbada oien berri jakingo du Hermano Valentin Berriochoa lasalletarrak,Irunen bere Ordenako kolejioan bizi danak.

Beste gabe,agindu zure lagun eta erritar oni

Aita Luis Villasante

Aita Villasantek Jose Basterretxeari egindako gutuna

Ignacio María Echaide
Ingeniero Industrial
—— San Sebastián ——

Otsailla-k 1,1962

José Antonio Loidi Jaunari
Irun-en

Nere adixkide on-ona:

Nere eskuetan da zurea (23-II-62).

Estten didazu Bilbo-tarrak nai dutela euskaltzaiñak egin,Urkijo,Etxegaray eta Arriola Jaunak. Irurak txitez nere gustokoak.

Bañan Urkijo aulkian ezartzea arkitzen det alpertik.Orrek diplomacia-ren bidea artu du, eta bizi bearko du beti Euskalerritik landara;atzerrian edo Madrid-en,Ministerio baten sartuta.Arkitzen det askoz egokiago, orren ordez, Castor Uriarte Jauna ipintzea.

Nola nai,Bilbotarrak Urkijoren izena altxatzeko gogo aundiya badute, Deduzko Euskaltzaiña egingo genduke.

Au da nere iritzea.

Besterik gabe, biotz-biotzez

Inazio Etxaidek (Yon Etxaideren aita) Jose Antonio Loidiri bidalitako eskutitza

ANGEL IRIGARAY
Endocrinas (Obesidad, Bocio)
SAN SEBASTIAN

Esnaola, 11
Teléfonos 17458 ~~10551~~

5-2-63

10½ rochet

Jose Antton Loidi Jaunari
Zuhen

Sue adiskide maitea. Santamaiz jaunak Sastigatzen dit, iztegiari buruz mintzatzeko pixka bat behar ginukela bidu beka, Zumalabe, gutani (astia balitz, Sanmartin ere), Zumalaberen etxean, urbiete Kamike-56.- Baina leenago jakin arazi behar didagu zein egunean datoween Sauden aste; ¿ astelehenean, asteartzenean (au ez dut nik arras libre, 8 orduak arte) eta ostiralean; arratsetako 7½ tan.

Naiz Santamaria ez dagon oso alde, iztegian naida nai ez, seriaraji bear ditugu izen-(bataio izen) erreskade bat eta Geografia izen propioak naiz gutti, iztegi astoban usatzen den kezale; eta sure lanak (astapen-etik) aurreen ikasketa arrontzeraako balio bear du.- Beraz, gaztiga zadazu egun bertan ganeko 10½ tan, eta otoi, ekarri utzik gabe, ene izen lerroaldia, kopiarik erpaintut, eta bilkuran era kutsi behar dugu.- diliput-iztegi ttipi espaiol-frantzes batetik asi bear dugu sure lana zuzenean ba-dugu, ekarzazu ere. Aurki arte

Bilduma pribatua 1982-1-11'an (ostirala)

11.07 3 61

Aingeru Irigarai-ren izkribua Jose Antonio Loidi-ri

RIJKSUNIVERSITEIT TE LEIDEN

FACULTEIT DER LETTEREN

Rapenburg 73
Leiden
Telefoon 071 - 148333
toestel:

code :
briefnr. :

onderwerp uw/onze brief: Leiden,

Agur, nire irakasle ta adiskide ori,

Poz-pozik artu dot zure eskutitza.
Gabon inguruan California egon nintzan
bost astetan eta orregaitik ezteutsut
lenago idatzi.
Zure osasuna gero ta obeto doala entzuteak
poz andia emoten deust. Gezurra dirudi, alare,
ebaketa baten ondorioak orren luzeak izateak!
Orain, obeto zagozenezkero, ea noiz etorriko
zayatazan Amsterdamera ikustaldi bat emoten!
Nire etxe barrian, beintzat, ederto jan eta lo egin
zegike, andi samarra da-ta.
Igazko martxoan astebetea emon neban Donostian,
bestelan ez naz Euskalerrian egon.
Amaitu dozu zeure euskalikasbidea? Non da
salgai?
Urte barri au zoriontsua eta arras emonkorra
izan dakizuela zeuri eta zeure emazteari opa
deutsuet biotz-biotzez,

Rudolf de Rijk,

bijlage(n):

zuzenbide barriak: Newtonstraat 6g II
1098 HA Amsterdam
Holanda.

Rudolf de Rijk-en eskutitza Jose Basterretxeari

Guatemala'tik 1955ko Ostaroa'k 28

Ugalde'tar Martin iaunari
Caracas'era

Aberkide ta adiskide ona:

Ala bearik, Venezuela laztan ortan sortu da gure aldizkariaren aldezle bizkoia, zure azkenengo ezkutitzak azaltzen dunez. Eskarik asko, ta zure gutuna biotz xuspergari gerta zaidanik esan bearik eztizut.

Euzko-Gogoa'kin irabazterik ez dut opa, alik eta geien irautea baizik, euskeraren onerako. Bost mila dolaretik gora txautu ditut, onezkero, gure aldizkaria dala-ta. Arpidedun txintxoenak Euzkadi'n bertan ditugu, orain arte. Irureundik gora dira bertakoek eta gosez artzen dute gure aldizkaria, batez ere zerbait ikasi dutenek. Arako, beraz, salneuri bereizia iari dugu, 60 laurleko, alegia ta txintxo ordaintzen dute.

Asieratik 100 ieki ora bialtzen asi nintzan, baña eten bearra izan nun, iruzpelas besterik ezpaitzuten ordaindu: asieran 10 dolar eskatu genien orkoei, Euskal-erikoen eza nolarebait bete dezaten. Geiegitxo omen da orako: 18 bolibar iari ditzagun, beraz, orako, ala baderitzazu. Besterik uste ba duzu, zeuk erabaki ta kito.

Nere ustez, arpidedun sall edera egin diteke orko euskaldunen artean, egiñalak egin bear, ordea: erbesteko euskaldun geienak ar-iota edo baitaude. Norberak bakarik dana ordain bearean, norbaitzuen laguntza ba'genu, lan ederagoa egingo genuke oraindik. Idazle bikaiñenak (irurogei ta amaretik gora) gure aldizkariaren inguruan bildu-erazi baititugu ta idazleak non idatzi euki bear du. Bakarik dana ordaindu izateko, laster porot egin dezaket, eta ori negargari izango nuke.

Ni ikastetxe batean ari nauzu lanean eta ortik atera izan dizut aldizkeria euste aiña; aurten, ordea, ikastetxea ere kilikolo dabillkit eta bearezko dut iñoren laguntza.

Guzion alegiñez euskera iraunerazi, zabaldu ta edertu dezagun.

Agindu euskeraren onerako aberkide ta adiskide duzun

Zaitegi ta Plazaola'tar Jokin'i

P.S. Orainsze bertan Bizkai'tik iaso dugun eskutitz batean auxe diranzku: "Jaunak eman dezaizuela bere esker-laguntza ugaria euskera-lan eder ontan aurera joan zaiterzen gero ta ederago aterazten, ta aindaño agertu zaigun aldbiko ederenen ontan. Jainko maitasun ta aberiko zaletasunak biztu ditzala zuen biotzak. Orain erbestean degu aldiroko au, Jainko lagun, albait laisterean gure Aberri askatuan ar jiarauko al da." Agur Z.

Euzko-Gogoa zela eta, Jokin Zaitegik Martin Ugalderi egindako eskutitza

Reno, 9 de agosto, 1970

Muy queridos y recordados amigos:

Hace casi 2 años, en una felicitación de Navidad, les puse una sola frase, que le iba a escribir. Después de tanto tiempo, estoy segura que ya no lo esperaban, pero aquí va la sorpresa! Hace más de un año que ne he escrito nada en castellano, y lo noto, proque ya no me sale natural como antes.

Es imposible condensar 3 años en pocas frases, y no lo voy a intentar. He dejados amistades en Navarra y Guipúzcoa, que son y serán para siempre muy recordadas. De vez en cuando escribo à uno, luego a otro, pero este año último no he escrito a nadie. Un señor a escrito a mi madre diciendo "A Yoshi parece que ya no le importa nuestra amistad".

Ustedes para mí son amigos especiales, casi todos los demás son gente de menos formación intelectual, que me quieren mucho (y yo a ellos), pero con quien no puede haber un intercambio mas que de lo más sencillo y básico. Mi Pilar de Guelbenzu escribe muy (sin faltas) e inteligente! Algunos vecinos de Eusa escriben ne ten bien, pero con frecuencia. Los de Tolosa no me escriben, porque no les he contestado su última del año pasado. Ahora voy a empezar (con ésta) a escribir a todos. Es un trabajo grande, pero merece la pena, porque para mí significa mucho lo que he dejado (he tenido que dejar) en el País Vasco.

Pasé 3 años bastante duros (en Austin, Texas). Como es corriente aquí en los EE.UU., fuí empleada y alumna a la vez. Vivir así es una lucha continua. Del trabajo se va a clase, de clase al trabajo; y estudiar, ¿cuándo? De noshces estás rendida, y los fines de semana pasas limpiando la casa un poco, lavando la ropa para toda la semana, y haciendo lo que puedas de las tareas del curso. Viví en una casita barata para estudiantes. (Dick vive en Nueva York.) Las niñas pasan el día en el colegio. Vino mi madre hace 2 años, y se llevó a Angelita a pasar un año escolar con ellos en Tokio. Ahora viene, el 6 de septiembre. En junio conseguí el título M.L.S. (Master of Library Science). No sé si ustedes dicen "biblioteconomía" o "bibliotecología", pero de todas maneras soy bibliotecaria. Trabajé por este título 3 años, por consideraciones económicas. No me quería quedar en Texas (mucho calor, y me gustan las montañas!) y empecé a buscarme trabajo en otro lugar en febrero. Hace tiempo tenía deseos de venir a Reno (Nevada), y usted tiene que saber por qué: porque es el único lugar en los EE.UU. (quizás en el mundo) donde ofrecen un programa de nivel universitario de estudios vascos. Tienen aquí una colección especial de libros vascos. Ya sabe, porque habrá leído en el Diario este verano. Pues, por mucha suerte y gracia de Dios, conseguí un puesto bueno en la biblioteca, que me paga $8,460 al año (o $705 al mes). Las cifras no le pueden decir mucho sin conocer bien la economía y nivel de vida de aquí, pero es un buen sueldo para empezar. Además, cuando me entrevisaron, les expliqué con toda claridad, que mi deseo de venir a vivir y trabajar aquí venía de mi interés para el idioma y la cultura vasca. Me prometieron una clase por (cada) semestre (3 horas la semana) sin matrícula (sin pagar), y sin quitarme esas horas que asisto en clase de mi sueldo (tengo que trabajar 8 horas al día, o 40 horas la semana, pero me van a regalar esas 3 horas). Estoy muy contenta. Empecé a trabajar el 13 de julio (en Sanfermines!), y encuentro la gente y las condiciones muy buenas. En Texas, aquí, y en España me han preguntado en varias ocasiones "Por qué el vasco". No sé exactamente, pero me ha gustado y encantado esa gente más que ninguna que he conocido en el mundo (los japoneses, alemanes, franceses, americanos, ingleses, árabes). Todos me gustan, pero he vivido más felíz con los vascos, y sin saber su idioma, y conocer bien su historia y literatura, no se puede compartir la cultura y sentimientos de una gente. Uno que no sabe el idioma siempre queda fuera como extranjero. ¿Puede ser conocido suyo el Profesor Bilbao de esta universidad? Yo no lo he visto, porque está con el curso de verano en Ustaritz o no sé donde. Espero empezar a aprender algo en septiembre. También voy a trabajar en la Colección Vasca como bibliotecaria. No hemos progresado mucho en las lecciones en Pamplona, porque no pude dedicarlas mucho tiempo y luego me tuve que ir, pero tengo su voz en la cinta y las notas de aquellas horas que pasamos tan felices.

A pesar de mi largo silencio, les he recordado muchísimas veces. Mi madre me dijo que de todas las personas que ha conocido en Pamplona, ustedes han sido las más interesantes y simpáticos. Le gustó mucho Ma. Dolores, y dijo que su conversación fué muy interesante. Angelita (ahora ya no sabe el castellano, pero ésto hace tiempo) me hizo una pregunta curiosa: "Mama, como se llama el hombre en Pamplona, que una vez cuando fuimos a su casa estaba enfermo en la cama?" Yo no me acordaba. "Vivía en una casa azùl, y tenía un niño y una niña, y viño a Eusa con

Yoshi Tezukak, euskara ikasteari buruz idatzitakoa

los niños y subimos todos al depósito del agua." Esto tenía intención de contarles hace más de 2 años. Los pequeños tienen una memoria muy curiosa, desde luego. Se acrodaba de que José estaba en la cama con algo del estómago una vez que fuímos. Dijo también algo del color de su bata, que era roja, pero yo no me acuerdo de tantas detalles. Como no había cumplido 4 años, ahora no se acuerda de muchas cosas, pero es natural. Esta mañana ha pasado por mi mente como un sueño, que sería interesante si pudieramos tener como un intercambio dentro de unos años, si sus hihos pudieran venir a pasar un verano o un año escolar aquí, y Angelita allí. Me acuerdo como ustedes deseaban que sus hijos aprendieran el inglés y tuvieran experiencias extranjeras. De esa manera vine yo a los EE.UU.: por amistades de mi madre que me arreglaron todo para venir y me dieron una habitación en su casa (en 1954!). Más me gustaría si toda la familia pudiera venir un verano (1971 o72?), porque cada vez vale menos el viaje por avión. Por ejemplo desde hace 2 años ha bajado como 20 por cien (mientras todo lo demás va subiendo!). Porque pienso quedarme en Reno ya para "siempre", he comprado casa aquí (es más barato comprar que alquilar: se paga menos al mes). Tengo cuartos extras para mis padres y amistades que puedan venir. Reno es muy bonito, FIRST FOLD y mucha gente viene a pasar sus

Yoshi Tazuka
P.O. Box ~~9997~~ 9389
Reno, Nevada 89507
U.S.A.

RENO
AUG 10
1 PM
1980
NV

Sr. Don
José Basterrechea M.
c/ Sangüesa 13, 1º-izqda.
Pamplona (Navarra)
Spain

AÉROGRAMME • PAR AVION

DO NOT USE TAPE OR STICKERS TO SEAL
NO ENCLOSURES PERMITTED

SECOND FOLD

vacaciones aquí. Si algun verano pueden gastarse $2,000 (quizás menos), ya saben a donde ir! Cuando vuelvan los del instituto vasco, les voy a preguntar cuanto les ha costado el viaje (el Profesor Douglas me dijo menos de $500). Los menores de 12 años pagan la mitad. Es bueno soñar, porque la vida ordinaria es dura y seca. Además algunos sueños se realizan, como por ejemplo mi sueño de venir aquí y por fin tener la ocasión de aprender el vasco! En mi año sabático (1976) iré al País Vasco casi de seguro, pero algún verano antes también.

Y nada más. No me faltan cosas para contar, pero ahora tengo que trabjar en otras cosas. Les quiero escribir con más frecuencia aquí en adelante, pues una vez en cada 3 años no es correspondencia! En septiembre sacaremos fotos con mi madre, y les mandaremos fotos y recortes del periódico de aquí sobre los vascos en los EE.UU.

Con mucho cariño, Yoshi

Caracas'en
1955'go
10'k
25

Zaitegi'tar Iokin jaunari
Guatemala'n

Aberkide ta lagun on-ora:

Befiro barkapena eskatu beafean nago. Azpaldi erantzun bear nuan zure idazti leiala artu nuala bi ilabete edo geiago izango dira ta. Bañan nere emaztearen etoferak eta beste lan batzuek [redacted] te zuri zor nizun denbora. Ni idatziz lagun gutxi egingo dituala uste det!

Eta idatzi bañon lenago beste zerbait bialdu nai nizuan. Emen dijoazkizu 75 dolar eta 14 arpide befi. Geiago ez det egiterik izan orain arte. Aufera geiago egiteko, orain arte arpidea dutenak zuzen "Eusko Gogoa" artzea izango da biderik onena. Garaiz eta txintxo eltzen ba'dira, ufengo urterako befitu ta geituko ditugu.

Nola erantzuten dizute beste efietatik? Peli'k ere emendik beste mordozka bat bialduko al'zizun. Venezuela'ko euskaldunak ari al'zaizkizu bear dan beufian laguntzen? Poz aundia emango lirake ala ba'litz. Nere zuretzako gogoa ez nere idaztiekin neufitu, afen. Ner e idaztiak banaka ta motzak ba'dira ere, edozein laguntza eskeintzeko gertu nago. Nik al'detan laguntza beintzat. Ez ba'au astu zerbait bear dezunean zure aldizkingi ederáren gogoa bizirik eukitzeko. Ba'dakit lan gogor-gogofá dala. Neronek ere lan apurtxo bat egin izandu det Eusko-Etxe'ko aldizkingiekin. Bañan zure lanaren bear-beafean gera danok. Gure [redacted] goxoa bein edo bein zuzpertuta ikusiko ote degu, edo gure ufengoak ikusiko ote dute! Euskeraren alde lan egiten duten euskaldunak ez dira ofetzaz beñere damutuko. Ta ondorengoak agurtuko dituzte.

Agur, ba,gaurkoz, adiskide on. Osasuna ta gogo alai opa dizut, ondasuna ez ba'da ere. Agindu nai dezu bezela

Zuzenbide befia:

edificio "Andoain"
Av. El Rosario-Transversal 1

Los Chorros. Edo. Miranda. Venezuela

Martin Ugaldek Jokin Zaitegi-ri bidalitako eskutitza

JHS

Larrea,1983-5-14

Jose Basterretxea jaunari
Iruña

Agur,euskal idazle jator!

Agur gozo baten ondoren, jakizu eskutitz onen zioa.

Onezkero dakizunez, emen nabil EUSKAL LITERATURA naino nasai bat osotzen. Zazpi ale izango dira; bost azalduak ditut,eta onarintxe diardut seigarrena ameitzen, 1905'tik 1925'ra bitartean jaioakaz. Zu bere bitarte ortakoa zaitut, eta zure bizitza ta lanen ditxa be berton agertzea nai neuke. Zerbait ba-dakit,baiña gauza gitxi.

Beraz, auxe da nire eskabidea. Bial eistazu albait ariñen zeure bizitzaz eta egin dituzun lanez ornidutakoa zerrenda bat. Ots: Nun,noiz -urtea,illa ta eguna- jaioa zarean; ikasteak nun osotu,noiz ezkondu,zeure karrera, noiztik erakusle, gerra aldean zer? Dato orreik zeatz-meatz ipiñi, garrantzitsuak dira-ta.

Idazle bezela, noiztik,nun,zer lan,zer liburu ta abar; zelako asmoak, beteak eta bete bage geldituak.

Dana dala, bialtzen dan guztia or geratuko da betiko.

Biotz-biotzez,

Aita Onaindia

Aita Onaindiaren gutuna

UNIVERSIDAD DE DEUSTO

APARTADO 1
48080 · BILBAO

TELF. (94) 445 31 00
TELG.: «UNIVERSIDAD»

I. Olea Jaunari
Donostian

1989.Apirilak 10

Iñazio jator hori:

Diario Vasco-n idazten dituzun lantxoak beti irakurtzen ditut. Oso ongi idatziak. Zure euskara zoragarria da.

Bihotzez ZORION zuri

Gotzon Garate Goihartzun

Gotzon Garatek Inozenzio Oleari idatzita